

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA
(DONOSTIAKO ATALA)

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

GRADO DE ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS

*URTEKO KONTUEN ONDARE GARBIAREN
AZTERKETA*

GRADU AMAIERAKO LANA
2018-2019 IKASTURTEA

Egilea: Nerea Arregui Ubetagoyena

Zuzendaria: Itsaso Barrainkua Aroztegi

Donostia, 2019ko Iraila

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. KONTABILITATE PLAN OROKORRA.....	5
I. Kontabilitate printzipioak.....	5
II. Balioeste arauak	7
III. Urteko kontuak.....	7
IV. Kontu taula	8
V. Kontabilitateko definizioak eta erlazioak.....	8
2. ONDARE GARBIAREN SAILKAPENA	8
3. ONDARE GARBIA OSATZEN DUTEN AZPI TALDEEN KONTZEPTUAK	10
a. FONDO PROPIOAK	10
b. BALIO ALDAKETAGATIK DOIKUNTZAK	22
c. JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA DOHAINTZAK.....	23
4. ONDARE GARBIA DESOREKA DUTEN ENPRESEN AZTERKETA	24
5. ENPRESEREN ANALISIA.....	28
6. ONDARE GARBIA DESOREKA ZUTEN ENPRESEN EMAITZA	61
ONDORIOAK	64
BIBLIOGRAFIA.....	66

TAULEN AURKIBIDEA

<i>TAULA 1: Enpresaren irabazien banaketa</i>	16
<i>TAULA 2: Galerak erreserbekin konpentsatzea.....</i>	16
<i>TAULA 3: Galerak balantzean barneratzea</i>	16
<i>TAULA 4: Banaketaren oinarria.....</i>	17
<i>TAULA 5: Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboaren konpentsazioa</i>	17
<i>TAULA 6: Erreserba legalaren banaketa.....</i>	18
<i>TAULA 7: Bestelako erreserba legalen banaketa</i>	18
<i>TAULA 8: Administrazioaileen kontabilizazioa eta ordainsariak</i>	19
<i>TAULA 9: Fundatzaileen bonoen banaketa.....</i>	20
<i>TAULA 10: Bestelako aplikazioak</i>	20
<i>TAULA 11: Karakate enpresaren balantzea</i>	31
<i>TAULA 12: Karakate enpresaren ratioak</i>	32
<i>TAULA 13: Karakate enpresaren errentagarritasun ekonomikoa.....</i>	33
<i>TAULA 14: Reparaciones auto-iraeta enpresaren balantzea.....</i>	34
<i>TAULA 15: Reparaciones auto-iraeta enpresaren ratioak</i>	35
<i>TAULA 16: Reparaciones auto-iraeta enpresaren errentagarritasun ekonomikoa</i>	36
<i>TAULA 17: Red de suministros tecnicos enpresako balantzea.....</i>	37
<i>TAULA 18: Red de suministros tecnicos enpresaren ratioak.....</i>	38
<i>TAULA 19: Red de suministros tecnicos enpresaren errentagarritasun ekonomikoa</i>	39

TAULA 20: Aizkolene enpresaren balantzea	40
TAULA 21: Aizkolene enpresaren ratioak	41
TAULA 22: Aizkolene enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	42
TAULA 23: Inrobul enpresako balantzea	43
TAULA 24: Inrobul enpresaren ratioak	43
TAULA 25: Inrobul enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	44
TAULA 26: Larrialdiak anbulantziak enpresaren balantzea	45
TAULA 27: Larrialdiak anbulantziak enpresaren ratioak	46
TAULA 28: Larrialdiak anbulantziak enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	47
TAULA 29: Okin talde enpresaren balantzea	48
TAULA 30: Okin talde enpresaren ratioak	49
TAULA 31: Okin talde enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	50
TAULA 32: Zinealdia enpresaren balantzea	51
TAULA 33: Zinealdia enpresaren ratioak	52
TAULA 34: Zinealdia enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	53
TAULA 35: Iammek enpresaren balantzea	54
TAULA 36: Iammek enpresaren ratioak	55
TAULA 37: Iammek enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	56
TAULA 38: Isasti enpresaren balantzea	57
TAULA 39: Isasti enpresaren ratioak	59
TAULA 40: Isasti enpresaren errentagarritasun ekonomikoa	60
TAULA 41: $OG < 2/3$ KS egoeran zeuden enpresen emaitza	61
TAULA 42: $OG < 1/2$ KS egoeran zeuden enpresen emaitza	61

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1: Espainian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 2015 eta 2017 urtean zeuden enpresa kopurua	29
Grafikoa 2: Espainian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 2015 eta 2017 urtean ondare garbian desoreka larria zuten enpresa kopuruen konparaketa	29
Grafikoa 3: Espainian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 2015 eta 2017 urtean ondare garbian desoreka oso larria zuten enpresa kopuruen konparaketa	30

SARRERA

Burututako lan honen helburua, Gipuzkoa mailan 2015 urtean ondare garbian desoreka zuten enpresen bilakaera aztertzea da; horretarako, enpresa horien egoera eta zenbait aldagai aztertu behar zirelarik.

Aipatutako helburu hori lortzeko, lehenik eta behin ondare garbian desoreka izatea zer den eta desoreka hori zerk eragiten duen aurrez ikusi beharko da. Hain zuzen ere, desoreka horrek ondare garbiarekin lotura zuzena duenez, hasiera batean, ondare garbia bere osotasunean aztertuko dugu, azpitalde bakoitza banan banan aztertuz kontzeptuak garbi edukitze arren.

Zati praktikoari dagokionez, desoreka horretan zeuden enpresen informazioa ahalik eta osatuena eta zehatzena aurkitu eta erabili bada ere, informazio guztia publikoa izan dela esan behar dugu, hau da, informazio mugatua izanik eta puntu gehigarriak eduki gabe.

Bestalde, lanaren egiturari dagokionez, zenbait ataletan banatzen da lana. Lehenik eta behin, kontabilitate plan orokorraren inguruko aipamen bat egiten da, guk landu nahi ditugun kontzeptuen oinarriak nondik datozen ezagutu eta kokatze arren. Ondoren, aurretik aipatu moduan, ondare garbiaren inguruko analisi zehatz bat burutzen da, non, azpitalde bakoitzaren kontzeptua eta legeak dioena azaltzen den. Zati teoriko horrekin amaitu ostean, ondare garbiaren desoreka zer den eta zergatik sortzen den aztertuko da, bai eta egoera horretatik irteteko enpresak izan ditzakeen aukerak ere aztertuko direlarik, beti ere, legearekin kontrastatuz.

Behin teoria aldetik kontzeptu guztiak ondo ulertu eta garbi geratu ostean, zati praktikoago bati ekingo zaio. Zati praktiko honetan, ondare garbian desoreka zuten enpresen analisi ekonomikoa egingo da; hala ere, esan beharra dago bi baldintza ezberdinetan dauden enpresak aztertuko direla, batetik, ondare garbia kapital sozialaren bi heren baino txikiagoa zuten ($OG < 2/3KS$) 5 enpresa aztertuz eta bestetik, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa zuten ($OG < 1/2KS$) beste 5 enpresa. Azterketa hau burutu ahal izateko, SABI datu basetik enpresen 2015-2017 urte bitarteko egoera balantzea eta galdu irabazi kontuko zenbait partida hartu dira kontuan, dokumentu hauen bidez, enpresa bakoitzaren errotazio fondoa, ratioak, errentagarritasun ekonomikoa zein bataz besteko heldze aroa kalkulatu.

Behin analisi ekonomikoa egin ostean, ikusiko dugu desorekan zeuden enpresen bilakaera nolakoa izan zen 2017 urtearekin alderatuz, hau da, hamar enpresa horien emaitzak emango dira eta orduan ikusiko dugu, enpresa guzti horietatik zeintzuk lortu zuten urtebeteko epean desoreka egoera horri aurre egitea eta zeintzuk ez. Gainera, ondare garbiaren desoreka horri aurre egitea lortu zuten enpresa horiei, zuzeneko analisi bat egingo zaie egoera horretatik irteteko enpresan egindako aldaketak aztertuz. Besteei dagokionez aldiz, hau da, desorekatik irten ez direnen inguruan irakurketa orokor bat egingo zaie, euren ahuleziak azaleratuz.

Azkenik, sarrerarekin amaitzeko, lan hau aukeratzearen arrazoi nagusia unibertsitatean emandako lau urte hauetan balantzea osatzen duten aktiboa eta pasiboa epigrafeak asko landu ditugunez eta ondare garbiarekin ez dugunez asko jardun, atal hau ere gertutik aztertu nahi nuen, bertako kontzeptuak modu teoriko zein praktiko batean ikusiz. Hasiera batean, kosta zitzaidan lanaren nondik norakoa zehaztea eta gauzak argi ikustea, izan ere, hasiera batean, lana beste modu batera bideratzen saiatu ginen, baina informazioa lortu eta gaiaren inguruko ezagutza gehiago lortzen joan nintzen heinean, gaiaren nondik norakoa aldatzea erabaki genuen, horrela izanik, lanean atal teoriko bat eta atal praktiko bat lantzea erabaki genularik. Bestalde, hasieran aipatu moduan ondare garbia ez dut gertutik aztertzeo aukerarik izan lehendik eta hortaz, kontzeptu asko berriak izanik pixka bat kosta zitzaidan lanean martxa hartzea. Gainera, atal praktikoan egindako lana burutzeko enpresa asko hartu behar izan nituen kontutan eta horrek ere zailtasunen bat edo beste ekarri zidan hasiera batean. Baina, denborak aurrera egin ahala eta edukia lantzen joan naizen neurrian gustura aritu naiz, lan interesgarria iruditu zait eta zenbait kontzeptu berri barneratzen lagundu dit.

1. KONTABILITATE PLAN OROKORRA

Lehenengo atal honetan, Espainiako enpresen kontabilitatea arautzen duen arautegia aurkezten da. Plan honen helburua, Europar Batasunak onartu zituen arau nazionaletara egokitzea zelarik. Hortaz, kontabilitate plan orokorrak nazioarteko arauak barneratzearen ondorioz, finantza inbertsioetan, ibilgetu ukiezinen inbertsioetan, merkataritza fondoetan, diru laguntzetan, pentsio planetan zein horiekin lotutako eragiketetan edukia sakontzea dakar.

Hortaz, enpresa guztiek kontabilitate plan orokorreko arauak jarraitu behar dituzte. Gainera, aurrerago sakonduko dugun moduan, enpresa guztiek UUKKak aurkeztu behar dituzte. Enpresa handien kasuan, UUKK horiek KPOren arabera egin beharko dituzte. Aldiz, enpresa txiki eta ertainek (ETE), ETEren KPOren arabera osatu beharko dituzte, horien kasuan beste ezaugarri batzuk izanik urteko kontu horiek osatzeko.

1514/2007 Errege Dekretuak 2007ko azaroaren 16an kontabilitate plan orokorra gainditu zuen.

Kontabilitate planak, normalizazioaren hainbat ezaugarri, bilakaera eta planaren edukia azaldu ostean, bost ataletan banatzen da:

- I. Kontabilitate printzipioak
- II. Balioeste arauak
- III. Urteko kontuak
- IV. Kontu taula
- V. Kontabilitateko definizioak eta erlazioak

Aipatutako bost atal hauen inguruan, esan beharra dago, lehen 3 atalen aplikazioa beharrezkoa izango dela, hortaz, azken bi atalen aplikazioa borondatezkoa izanik.

I. Kontabilitate printzipioak

2007ko KPOak marko kontzeptual bat barneratzen du. Kasu honetan, ez du arau gisa jarduten, baizik eta kanpoko erabiltzaileei finantza egoerak prestatzeko eta aurkezteko beharrezkoak diren kontzeptuak mugatzeko erabiltzen da.

Marko kontzeptual hainbat zatitan banatzen da:

- Urteko kontuak irudi Fidela erakustea

Urteko kontuak garbiak eta egiazkoak izan behar dute. Hau da, ematen den informazio ekonomiko finantzarioa ulergarria eta erabilgarria izan beharko da erabiltzaileentzat, finantza egoeren irudi Fidela erakutsiz.

Hala ere, urteko kontuek ematen duten informazioarekin nahikoa ez bada, enpresaren irudi Fidela erakusteko, osagarria den informazioa memorian islatu beharko dute.

- Urteko kontuetan barneratu beharreko informazioa

Urteko kontuetan ematen den edukiak garrantzizkoa eta fidagarria izan behar du. Informazio edo eduki hori garrantzitsua izateko, ezinbestekoa izango da erabaki ekonomikoak hartzeko baliagarria suertatzea. Hortaz, baldintza hori bete ahal izateko, urteko kontuek behar bezala erakutsi beharko dituzte enpresak dituen arriskuak.

Bestalde, fidagarritasunari dagokionez, ematen den informazioa errore materialik ez duenean eta neutrala denean izango da. Hau da, horrelakoetan bazkideak, ematen den informazioan konfiatu ahal izango dute.

- Kontabilitate printzipioak

Araudiak adierazten duen moduan, erregistrorako eta baloraziorako jarraitu beharreko kontabilitate printzipioak honako hauek izango dira:

- Funtzionamenduan dagoen enpresa

Egoera finantzarioak eratzekoan, zuzendaritzak baloratu beharko du erakundeak zenbaterainoko gaitasuna duen funtzionamenduan jarraitzeko, kontuan edukiz etorkizunari begira duen informazioa.

Erakundeak izan duen esplotazio maila eta finantzazioarekiko duen erraztasunaren arabera, ebaluazio hori simplea izango da, bestela, faktore gehiago aztertu beharko dira.

- Sortzapena

Erakundearen egoera finantzarioak, kutxa fluxuen egoera orria ez ezik, sortzapenaren kontabilitate printzipioa erabiliz garatuko da, hau da, urteko kontuek azaltzen duten ekitaldiari egotziko zaizkio urte horri dagozkion sarrera eta gastuak, hauek sortu ahala erregistratuko direlarik, noiz ordaintzen edo kobratzen diren kontuan izan gabe.

- Uniformetasuna

Irizpide bat hautatzen denean, denboran zehar mantendu egin behar da ekitaldi batetik bestera, hau da, enpresaren kontuak egitean beti irizpide berdina mantendu beharko dutelarik, jardueraren izaera aldatu ezean edota beste printzipio bat egokiagoa dela ohartuz gero. Irizpide hori aldatuz gero, argi adierazi beharko da honek ekarriko dituen aldaketak urteko kontuetan izandako eragin kuantitatibo nahiz kualitatiboak zehaztuz.

- Zuhurtasuna

Beti enpresaren egoera erreala adierazi behar du, eta horrela, urteko kontuek ekitaldi itxierako egunera arte lortutako irabaziaz bakarrik kontabilizatuko dira. Beti hartu beharko dira kontuan arrisku guztiak, bai eta, aktiboen amortizazioak eta narriaduragatik egindako balio zuzenketak memorian islatuz.

- Ez konpentsatzea

Ez da aktiboa pasiboarekin ez eta sarrera gastuekin konpentsatuko, arau edo baldintza batez baimendurik ez badago. Hau da, ez aktiboko eta ez pasiboko kontuak ez dira elkarrekin konpentsatzeko kontu bakoitzari dagokion kopurua mantenduko zaio ekitaldian zehar.

- Garrantzi erlatiboa

Zorroztasunak eragin handirik ez duenean, izaera edo funtzio antzekoak dituzten kontuak bateratu daitezke, beti ere, honek ez duenean aldaketa handirik suposatzen ez

kuantitatibo eta ez kualitatiboak, irudi fidelean eragina izan gabe. Kontrako kasuan, funtzio ezberdinak aurkeztu beharko dira.

- Onartutako kontabilitate printzipioak eta arauak

Oro har, onartzen diren kontabilitate printzipioak eta arauak, honako hauek izango dira:

- Merkataritza kodea eta gainerako merkataritza legeria.
- Kontabilitate Plan orokorra eta bere sektorearen egokitzapena.
- Kontabilitate eta kontu Auditoretzaren institutuak (ICAC) kontabilitate gaiak garatzeko ezartzen dituen arauak.
- Eta espezifikoki aplikatzen den gainerako legeria.

II. *Balioeste arauak*

1. Kontabilitatearen kontzeptu-esparruaren garapena.
2. Ibilgetu materiala.
3. Ibilgetu materialari buruzko arau bereziak.
4. Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak.
5. Ibilgetu ukiezina.
6. Ibilgetu ukiezinari buruzko arau bereziak.
7. Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu multzo inorenagarriak.
8. Errentamenduak eta antzeko eragiketak
9. Finantza-tresnak

III. *Urteko kontuak*

Merkatal erregistroan aurkeztu behar diren urteko kontuak:

- Balantzea
- Galdu irabazi kontua
- Memoria
- Ondare garbiaren aldaketa orria
- Diru fluxu taula

Aipatutako lehenengo hiru kontuak derrigorrez aurkeztu beharrekoak dira, eta ondorengo biak, urteko kontu laburtuak aurkeztu ezin dituzten enpresentzat bideratua izango da.

Balantzea, hiru azpi taldetan banatzen da. Hau da, aktiboa, pasiboa eta ondare garbia, alegia. Aktiboa, enpresak ekonomikoki kontrolatzen dituen ondasun eta gainontzeko eskubideak dira, iraganeko gertaera batetik eratorriak eta etorkizunean elementu hauekin mozkin ekonomikoak lortzeko probabilitatea dagoena. Pasiboa, iraganeko gertaerengatik sortutako gaur egungo betebeharrak dira, hauen desagertzeak mozkin ekonomikoa sortu dezakelarik, baliabideen murrizketa bat eraginez. Eta azkenik, ondare garbia, enpresaren aktiboei pasibo guztiak kendu

ondoren geratzen den hondar balioa da. Eraketa unean edo ondorengo edozein uneetan, bazkide edo jabeek eginiko ekarpenak barneratuko ditu, ekarpen hauek ez dute pasibo izaera izan behar, metatutako emaitzak edo honi eragiten dioten bestelako aldaketa moduan.

Galdu irabazi kontua, Sarrera zein gastuek osatzen dute. Sarrerak, ekitaldian zehar enpresaren ondare garbiak izandako gehikuntzak izango lirateke, bai aktiboak gehitu direlako, baita pasiboak gutxitu direlako, beti ere bazkideek edo jabeek egindako ekarpenak ez badira.

Gastuak aldiz, ekitaldian zehar enpresaren ondare garbiak izandako murrizketak lirateke, bai aktiboak gutxitu direlako baita pasiboak handitu direlako, beti ere, bazkideei edo jabeek itzultitako ekarpenak ez badira.

Memoriaren helburua aldiz, urteko kontuak osatzen dituzten gainerako dokumentuetan jasotako informazioa osatzea, zabaltzea eta azaltzea da.

Ondare garbiaren aldaketa orria, bi taldetan bereizten da. Batetik, onartutako sarrera eta gastuen egoera eta bestetik, ondare garbiaren aldaketen egoera osoa.

Diru fluxuen egoera, Diruzaintza eta antzeko beste zenbait aktibo likidoak adierazten dituzten aktiboan jatorria eta erabilera adierazten ditu, mugimenduak jarduera desberdinen arabera sailkatuz eta ekitaldian diruzaintzak izan duen aldaketa garbia zehaztuz.

IV. Kontu taula

Kontu taula, taldeetan (digito 1), azpitaldeetan (digito 2), kontuetan (digito3) eta azpikontuetan (digito 4) banatzen da.

Taldeak ondorengoak dira:

- Finantziario arrunta
- Ibilgetua
- Izakinak
- Zordunak eta hartzekodunak eragiketa komertzialengatik
- Kontu finantzarioak
- Erosketa eta gastuak
- Salmenta eta sarrerak
- Ondareari aplikatutako gastuak
- Ondareari aplikatutako sarrerak

1990eko KPO-rekin duen ezberdintasunetako bat, 2007an 8 eta 9 kontuak ezarri dituztela da. Hau da, ondare garbiari aplikatutako sarrerak eta gastuak kontuak sortu dituzte eta beraz, sarrera zein gastu hauek ez dute zertan emaitzen kontutik pasa behar.

V. Kontabilitateko definizioak eta erlazioak

KPO ren zati honetan, kontu bakoitzaren edukia zehazten da, kontu bakoitzean izandako mugimenduak ere adieraziz.

2. ONDARE GARBIAREN SAILKAPENA

Beraz, sarreran nahiz ondoren aipatu moduan, bai eta KPOren arabera, urteko kontua osatzen duen balantzea hiru azpitaldeetan banatzen da, hau da, aktiboak, pasiboak eta ondare garbia, hain zuzen ere. Hala ere, aipatu moduan lan honetan ondare garbian zentratuko gara, horretarako, ondare garbia

osetzen duten azpitalde guztiak banan bana aztertuko direlarik. Hona hemen ondare garbia osetzen duten eta aztertuko ditugun azpitalde bakoitzaren izenak.

ONDARE GARBIA

A) ONDARE GARBIA

A-1) FONDO PROPIOAK

I. KAPITALA

1. KAPITAL ERABILGARRIA
 100. Kapital soziala
 101. Fondo soziala
 102. Kapitala
2. BEHARREZKOA EZ DEN KAPITALA
 - (1030). Aldi baterako bazkideak, kapital soziala
 - (1040). Diruzko ekarpena ez duten bazkideak, kapital soziala

II. JAULKIPEN PRIMA

110. Jaulkipen prima

III. ERRESERBAK

1. LEGE ETA ARAUDIA
 112. Derrigorrezko erreserba
 1141. Estatutu erreserba
2. BESTE ERRESERBAK
 113. Borondatezko erreserbak
 1140. Enpresaren akzio edo partizipazioen erreserba
 1142. Amortizatutako kapitalaren erreserba
 1143. Merkataritza fondoaren erreserba
 1144. Berme gisa onartutako akzioen erreserba
 115. Irabazi, galera eta bestelako dohikuntzak egiteko erreserbak
 119. Kapitala eurotan doitzeagatikoa diferentzia

IV. AKZIO ETA ONDARE PARTAIDETZA PROPIOAK

- (108). Akzio edo partaidetza propioak egoera berezietan
- (109). Akzio edo partaidetza propioak kapital murrizketarako

V. AURREKO EKITALDIKO EMAITZA

1. GAINERAKOA
 120. Gainerakoa
2. Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa
 - (121). Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa

VI. BAZKIDEEN BESTELAKO EKARPENA

118. Bazkide edo jabeen ekarpenak

VII. EKITALDIKO EMAITZA

129. Ekitaldiko emaitza

VIII. KONTURAKO DIBIDENDUA

- (557). Konturako dibidendua

IX. ONDARE GARBIKO BESTELAKO TRESNAK

111. Ondare garbiko bestelako tresnak
 1110. Finantza tresna konporsatuaren jaulkipena
 1111. Ondare garbiko gainontzeko tresna

A-2) BALIO ALDAKETAGATIK DOIKUNTZAK

- I. **Salmentarako dauden aktibo finantzarioak**
133. salmentarako prest dauden aktibo finantzarioen doikuntzak
- II. **Estaldura eragiketak**
1340. Eraginkortasunaren kopurua
- III. **Bestelakoak**
137. Sarrera fiskalak hainbat ekitalditan banatzea
1370. Sarrera fiskalak arrazoi ezberdinengatik hainbat ekitalditan banatzea
1371. Sarrera fiskalak hobari eta kenkariengatik hainbat ekitalditan banatzea

A-3) JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

130. Kapitaleko diru laguntzak
131. Dohaintzak eta kapitaleko ondasunak
132. Bestelako diru laguntzak eta dohaintzak

3. ONDARE GARBIA OSATZEN DUTEN AZPI TALDEEN KONTZEPTUAK

Eskema orokor hau ikusi ondoren eta elementuen izenak ezagutu ondoren, bakoitza zer den eta zertarako erabiltzen den ezagutu beharko dugu. Gainera, elementu bakoitzaren kontzeptua ezagutzeaz gain, epigrafe bakoitzerako legeak zer zehazten duen ere aztertuko dugu jarraian.

ONDARE GARBIA:

Merkataritza kodeko 36. Artikuluak dioenez, ondare garbia aktiboen finantziario iturri propioak dira, hasierako kapital soziala, jaulkipen prima eta erreserbak azpi multzo nagusiak izanik.

Enpresaren ondare garbiak bere benetako balioa islatzen du, izan ere, aktiboko elementuen (enpresak duena edo zor diotena) eta pasiboko elementuen (zor duena) arteko diferentziaz osatzen delarik.

Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Apariciok diotenaren arabera, (2014) “Enpresak dituen aktiboei pasiboak kenduz geratzen den hondar balioa da. Hasiera batean, bazkide edo jabeek egindako ekarpenak izango lirateke. Hau da, enpresak auto-finantzarako erabiltzen dituen baliabideak dira, nahiz eta bereak ez izan itzuli behar ez dituenak, alegia.” (pág. 10)

a. FONDO PROPIOAK

Enpresaren ondare garbiari dagokion azpimultzo bat da, eta hortaz, enpresak auto-finantzarako erabiltzen dituen baliabideen zati bat izango da.

I. KAPITAL SOZIALA:

“Bazkideek egindako ekarpenekin osatua egongo da eta zor moduan kontsideratzen ez dituztenez, ez itzulgarritzat hartuko dira. Eragiketa hauek enpresaren eraketa momentuan egin ohi dira.

Ekarpen hauek bi motatakoak izan daitezke, diruzkoak eta ez diruzkoak” (Kiziryán, Fondos propios, 2015).

Diruzko ekarpenak: Bazkideek, eraketa momentuan notarioaren aurrean egindako eskrituran diruzko ekarpenak egin dituztela frogatu beharko dute. Nola frogatu?

- 1) Dirua notarioari emanaz, honek, sozietatearen izenean dagoen kreditu entitate bateko kontu batean gordailatuko duelarik.
- 2) Kreditu entitate batean diru hori gordailatuko dela adierazten duen ziurtagiria notarioari entregatuz, notarioak eskrituran barneratuko duelarik.

Diruzkoak ez diren ekarpenak: Ekarpak hauek eraketa eskrituran edo kapital gehikuntzaren exekuzioan deskribatu beharko dira, beren datu erregistrarekin, eurotan duten balioa eta egindako ekarpenen truke.

Bazkideek ekarpen hauen ondorioz enpresak funtziona dezan dute helburutzat, beren jarduera ekonomikoak gauzatzeko eta helburu sozialak lortzeko. Ekarpak egiten dituzten pertsonak, akziodunak bihurtzen dira. Honen ondorioz, enpresaren erabakietan parte hartzeko eskubidea lortzen dutelarik.

Beharrezko kapitala:

Ondare garbian barneratzen den kapital soziala, merkataritza sozietatea eratzean kapitalean dagoen zenbateko nominala da.

Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio (2014) adierazten duten moduan, “sozietate anonimoen kasuan, kapital sozialaren zenbatekoa emititutako akzio bakoitza bere balio nominalarekin bidertuz lortzen dena izango da, beti ere, kapitala erregistratuta egonik eta pasibo bat sortzen ez duelarik”. (pág. 13).

Emititutako akzioak zenbaitetan pasibo finantzario izaera hartu dezakete eta hortaz, sozietatearen pasiboan agertuko lirarteke, ondoren aztertuko dugun moduan.

101 kontuan “fondo soziala”, merkataritza izaera ez duten entitateen kapitala barneratzen da. Besteak beste, sozietate zibilak edota fundazioak.

102 kontuan “kapitala”, bakarkako enpresen kapitala islatzen du.

Beharrezkoa ez den kapitala:

Sozietate anonimoen konstituzio eta kapital gehikuntzan, kapital soziala hasieran despoltsatu behar da edo gutxienez, akzio bakoitzaren balio nominalaren laurdena.

2010ko uztailaren 2ko 1/2010 errege dekretuak, Kapital Sozietateen legeak dioenaren arabera (Ley de sociedades de capital-eko 1,3 eta 4 artikuluen arabera), Sozietate Anonimoetan eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan, bazkideek ez dute sozietatearen zorreatatik erantzuten. Beren erantzukizuna sozietatearen ondarrera egin zituzten eta egin behar dituzten ekarpenetara mugatzen da eta horixe da gal dezaketen bakarra. Sozietatearen zorrei sozietatearen ondareak egingo die aurre (Sozietatea pertsona bat da eta bere ondarea dauka). Bazkideen obligazioa harpidetu dituzten akzioei edo partizipazioei dagozkien ekarpenak egitea da.

Akzioak eta partizipazioak kapitalaren zatiak dira. Bazkide bat hainbat akzio eta partizipazioen titularra izan daiteke. Zenbat eta akzio edo partizipazio gehiagoren jabe izan, bere eskubide sozialen intentsitatea handitzen da. 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 errege dekretua, kapital sozietateen legearen 90, 91 eta 92 artikuluen arabera, erantzukizun mugatuko sozietateen partizipazioak eta sozietate anonimoko akzioak zatiezinak eta metakorrak dira, hau da, akzioak eta partizipazioak ezin dira balio gutxiagoko zati txikiagotan zatitu. Gainera, partizipazio edota akzio bakoitzaren titularrari,

bazkide izaera eta lege zein estatutuetan ageri diren eskubideak transmititzen zaizkio. Akzioak titulu edota kontuko oharpen batzuen bidez irudikatzen dira, partizipazioak aldiz, ezingo dira titulu edo kontuko oharpen batzuen bidez irudikatu, ezta ere akzio moduan izendatu eta ez dute balio izaera izango.

Akzioek eta partizipazioek hiru balio mota dituzte:

- 1) *Balio nominala*: Balio hau estatuetan azaltzen da eta bazkideak, gutxienez, egin beharreko ondare ekarpena adierazten du. Balio nominala, hasiera batean, ez da aldatuko eta finkoa da, kapital gehikuntza edo gutxitze bat egiten ez bada behintzat, akzioen edo partizipazioen balio nominala gehituz edo gutxituz.
Kapitala, akzio eta partizipazio guztien balio nominalaren batura da. Balio nominal desberdineko akzioak izanez gero, serie desberdinekoak izango dira.
- 2) *Balio teoriko, kontablea edo balantzekoa*: Balantzetik kalkulatzen dena da. Akzioari edo partizipazioari, kapitalean duen portzentaia kontuan izanik, ondarearen baliotik dagokion zatia da.
Balio teorikoa aldatuz doa, hau da, sozietateak irabaziak baditu, balio teorikoa igo egingo da eta gaizki badoa, hau da, galerak baditu jetsi egingo da.
- 3) *Merkatuko balioa edo kotizazio balioa*: Akzioak edo partizipazioak hirugarrenei saltzen bazaizkie, momentu horretan duten salmenta prezioa izango da merkatuko balioa. Eskaintza eta eskariaren arabera zehazten da balio hau.

Sozietate Anonimoan kapitala, gutxienez, 60.000 eurokoa izango da eta akziotan zatituta dago. Akzioak, estatutuek kontrakorik ez badiote, libreki transmitigarriak dira. Sozietate kapitalista purua da, orokorrean, bazkideen ezaugarri pertsonalek ez baitute interesik, kapitalean duten partaidetzak baizik. Enpresa handietarako dira egokiak eta, burtsan kotizatu nahi badute, Sozietate Anonimoak izan beharko dira.

Erantzukizun Mugatuko Sozietatean kapitala, gutxienez, 3.000 eurokoa izango da eta partizipaziotan zatituta dago. Sozietate itxia da, bazkide izaera transmititzea zenbait murriztapenetara lotuta bait dago. Beraz, nahiz eta kapitalista izan, pertsonalisten ezaugarriak ere baditu. Enpresa txiki eta ertaintetarako egokiena da, baina enpresa handietarako ere erabili daiteke, beti ere, azken honek ez badu burtsan kotizatu nahi.

Kapital zifra estatutuetan zehazten den zifra bat da. Kapital zifra, partizipazio (EMS) edo akzio (SA) guztien balio nominalaren batura da.

Kapitala partizipaziotan edo akziotan zatituta dagoenean ez da zifra formal bat ondare ekarpen bat suposatzen baitu. Kapitala akziotan (SA) edo partizipaziotan (EMS) zatituta dago eta akzio edo partizipazio bat harpidetzen duen bazkideak bere balio nominala despoltsatu behar du. Akzio edo partizipazio guztien balio nominalaren batuketa kapital zifra da.

Sozietate Anonimoan kapital soziala ezin daiteke 60.000 euro baino baxuagoa izan. Eraketa momentuan, akzio guztiak harpidetuta egon beharko dira baina, despoltsapenari dagokionez, posible da bazkideek akzio bakoitzaren balio nominalaren ehuneko 25a bakarrik despoltsatzea eraketa momentuan (baita kapital gehikuntza egiterakoan) bazkideek horrela erabakitzen badute. Despoltsatu gabe gelditu den akzio bakoitzaren balio nominalaren zatiari dibidendu pasibo deitzen zaio eta sozietateak bazkidearen kontra duen kreditu eskubide bat da izango da.

Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan kapitala ezingo da inoiz 3.000 euro baino baxuagoa izan eta eraketa momentutik osorik harpidetuta eta despoltsatuta egongo da.

Kapital zifra minimo hori, ez da fundazio momentuan bakarrik errespetatu behar, sozietatearen bizitza osoan baizik.

Aldiz, *sozietate kolektiboan*, bi edo bazkide gehiagok, jarduera bat garatzen dute, bazkide guztiek sozietatearen zorreatatik subsidiarioki, solidarioki, pertsonalki eta mugagabeki erantzuten dutelarik. Sozietate kolektiboak beren bazkideen jarduera pertsonala eta esperientzia garrantzitsuak diren enpresa txikietarako dira bereziki egokiak.

Bazkide kolektiboek, eraketa eskrituran zehaztutako moduan, ondasunak, industria edo hauetako baten ekarpena egiteko obligazioa dute. Ekarpinak, ondasunak, dirua, eskubideak edo industria (lana edo zerbitzuak) izan daitezke.

Sozietate komanditario sinplean aldiz, gutxienez, bi bazkide izango ditu. Bi motakoak dira eta, gutxienez, mota bakoitzeko bat egongo da. Hau da, gutxienez, bazkide kolektibo bat eta bazkide komanditario bat egon beharko dira.

Bazkide kolektiboek, sozietatearen administrazioa dagokie eta sozietatearen zorreatatik subsidiarioki, solidarioki, pertsonalki eta mugagabeki erantzuten dute, aldiz bazkide komanditarioak, ez dute sozietatearen gestio eta ordezkapenean parte hartzen eta sozietatearen zorreatatik ez dute beraiek pertsonalki erantzungo.

Sozietate komanditarioak, enpresa espiritua eta merkataritza gaitasuna duten pertsonak eratutako negozioak hasteko balio du. Baina pertsona horiek ez dute kapital nahikoa eta, erantzukizun mugatua izango duten eta, enpresaren martxan ez sartzea onartuko duten bazkide kapitalistak bilatzen dituzte.

Azkenik, sozietate kooperatibatan, estatutuek zehaztutako gutxieneko kapital zifra minimoa eta gutxienez, 3.000 eurokoa izango da eta kopuru horrek hasieratik osorik despoltsatuta egon behar du. Kapitala bazkideek egindako ekarpenekin osatzen da. Kapital hori aldakorra izan daiteke, bazkideen sartu aterakin murriztu edo handitu egiten delarik. Errespetatu beharrekoa estatutuetan adierazitako gutxieneko kapitala izango da.

Gainera, kooperatibatan ekarpinak derrigorrezkoak eta borondatezkoak izan daitezke. Estatutuek finkatzen dute bazkideek egin beharreko hasierako derrigorrezko ekarpena eta harpidetza momentuan gutxienez, %25 despoltsatu beharko dute.

Bestalde, estatutuetan erregulatuko da baja kasuetan, bazkideek kapitalera egindako ekarpenak berreskuratzeko eskubidea. Kasu hauetan, sozietateak baja hartu duen bazkideari, ekarpenak bueltatzeko orduan, dedukzioak aplikatu diezazkioke. Dedukzio hauek derrigorrezko ekarpenetatik bakarrik egin daitezke eta bazkidea iraitzi badute, dedukzioek ez dute %30 gaitutuko eta arazoitu gabeko baja izan bada, gehienez, %20 deduzitu daiteke.

II. JAULKIPEN PRIMA:

Jaulkipen prima akzio batekiko ordaindu behar duen gain prezioa da, bere balio teoriko edo nominalarekiko.

Orokorrean, jaulkipen prima hau sortzen da, jadanik, eratua dagoen enpresa batek bere kapital soziala handitzea erabakitzen duenean bazkide berrien sarrera onartuz. Hau da, bere negozioa

handitzea helburu duen sozietateak, bere akzioak salmentan jartzen dituenean (Herández Cuellar, 2015).

Bestalde, hasierako inbertitzaileak erabaki ahal izango dute akzio hauen prezioa bere balio nominalaren berdina izango den (beraiek ordaindutakoaren berbera) edota akzio bakoitzeko gainprezioa edo prima bat ezarriko dien. Gainprezio honi jaulkipen prima deritzo (Herández Cuellar, 2015).

Bereziki, idatziz adierazitako balioaren eta diruzko ez sarrera moduan erregistratu behar diren balioen artean ematen diren ezberdintasunak barneratzen ditu, balorazio arau eta kontabilitate plan orokorraren arabera (KPO) (Real decreto 1514/2007, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad, 2007).

Bestalde, 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 errege dekretua, Kapital Sozietateen legean onartutako 298. artikulua arabera:

- 1) Sozietateko kapitalaren hazkundera dela eta, zentzuzkoa da partaidetza sozialak sortzea eta primak dituzten akzioak igortzea.
- 2) Akzio berrien harpidetza momentuan, prima osoa ordaindu beharko da.

III. ERRESERBAK:

Enpresak dituen mozkin banatu gabeak dira, hau da, enpresak lortutako irabazietatik sortzen dira. Erreserba hauen jatorria ezberdinak izan daitezke. Batetik, enpresak, borondatez, bere onurak bazkide edo jabeei dibidendu moduan ez banatzeagatik. Bestetik, kapitalaren gain egindako eragiketetatik ere sortu daitezke.

Batetik, erreserba motak hauek ditugu:

1) Derrigorrezko erreserba:

Kapital Sozietateen legearen 274.1 artikuluan adierazten den moduan, Estatutuek edo Batzar orokorrak ezartzen duten soberakin erabilgarrien %10 edozein kasutan erreserbetara eramateko obligazioa dute, kapital sozialaren %20 a estali arte.

Bestalde, erreserbatako zenbatekoa aldatu egin daiteke kapitalaren gehikuntza edo gutxikuntza baten ondorioz.

2) Borondatezko erreserba:

Enpresaren mozkinetatik borondatez gorde direnak dira. Hau da, enpresak libreki osatutakoak dira (Real decreto 1514/2007, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad, 2007).

3) Erreserba bereziak:

Erreserba bereziak, erreserba legala eta borondatezkoak ez diren gainontzeko guztiak dira. Derrigorrezko erreserba gisa jarduten dute hauek ere, baina, jatorri ezberdinak dituzte (Real decreto 1514/2007, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad, 2007).

- a. *Erreserba estatutua:* Estatutuek ezarritako erreserbak dira.
- b. *Amortizatutako kapitalerako erreserba:* "Erreserba bereziak dira, sozietate anonimo batek kapital murrizketa bat burutzean egin beharreko ekarpenak

itzultzen ditu baliabide erabilgarriak erabiliz” (Kiziryan, Reservas, 2015). Hau da, kapitalaren murrizketaren garaian, legegileak murrizketa horren balioa ematea beharrezkoa izango da erreserba bat egiteko.

- c. *Merkataritza fondoagatiko erreserba*: Urteko kontuen auditoriaren 22/2015eko uztailaren 20eko legean adierazten den moduan, Merkataritza fondoa guztiz amortizatuko da eta gainera, maniobra funtsaren erreserba ez da zertan beharrezkoa izango.
- d. *Akzioen erreserba*: “Sozietate nagusiaren akzioak erostearen ondorioz sortzen da” (Kiziryan, Reservas, 2015).

4) Irabazi eta galeren erreserbak:

“Epe luzeko langileak ordaintzeko erabiltzen dira” (Kiziryan, Reservas, 2015).

Bestalde, *Sozietate kooperatiboen, 4/1993 legea, ekainaren 24koak*, erreserben banaketari dagokionez, %20 gutxienez “derrigorrezko erreserba fondoetara” eramango da eta %10 gutxienez, “hezkontza eta sustapen fondora”.

Derrigorrezko erreserba fondoaren helburua kooperatiba garatzea eta sendotzea izango litzateke. Aldiz, hezkuntza eta sustapen fondoa, bazkideak eta langileak kooperatiben printzipiotan heziketa emateko erabiltzen da.

Gainerako erreserben banaketa batzar orokorraren esku geratzen da.

IV. **AKZIO ETA ONDARE PARTAIDETZA PROPIOAK:**

Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicioren esanetean (2014) “Sozietate anonimo eta erantzukizun mugatuko sozietateak, arrazoi eta helmuga ezberdina duten akzio edo partizipazioak lortu eta eduki ditzakete, beti ere, ondare garbi txikiago bat suposatzen duelarik 108 eta 109 kontuetan islatzen direnak, ikur negatibo batekin” (pág. 15).

108 kontua “Akzio edo partizipazio propioak egoera berezietan”.

Enpresak erosi edo eskuratutako akzio edo partizipazio propioak dira. Ondare garbian barneratzen dira ikur negatiboarekin (Plan general contable, 2008).

109 kontua “Kapital murrizketarako akzio edo partizipazio propioak”.

Batzar orokorrak hartutako kapital murrizketaren akordioaren exekuzioan dagoen enpresa batek erosi edo eskuratu ditzakeen akzio edo partizipazio propioak dira (Plan general contable, 2008).

V. **AURREKO EKITALDIKO EMAITZA:**

Enpresak aurreko urtetik banatu gabe dituen irabaziak barneratzen dira, urteko kontuak onetsi eta emaitza banatu ostean. Bertan, irabaziaz gain, aurreko urteetan izan diren eta konpentsatu ez diren galerak ere islatzen dira.

“120 kontuan “gainontzekoa”, banatzen ez diren edo beste edozein kontutan aplikatzen ez diren onurak barneratzen dira, urteko kontuak onetsi eta emaitza banatu ondoren.

121 kontuak “aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa”, aurreko urteetan gauzatu diren eta konpentsatu ez diren galerak islatzen ditu” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 15).

VI. BAZKIDEEN BESTELAKO EKARPENA

“Galerak konpentsatzeko, bazkideek o akziodunek entregatutako ekarpenak dira” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 15).

VII. EKITALDIKO EMAITZA

Sarreraz eta gastuez sorturiko emaitza ordezkatzen duen kontua da.

“129 kontuak, ekitaldiko emaitza adierazten du. Aldiz, ekitaldiko emaitza negatiboa bada, 129 kontua ikur negatibo batekin ageriko da, ondare garbia txikituz, 121 kontura igaro arte” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 15).

Emaitzaren aplikazioari dagokionez, sozietateak lortutako irabazi zein galerei ezartzen dien helmuga da.

Ekitaldiko emaitza zehaztua dagoenean, administratzaileek emaitzaren aplikazioaren inguruko proposamen bat burutu beharko dute, ekitaldia itxi zenetik 3 hilabeteko epean gehienez ere, horrekin batera urteko kontuak eta kudeaketa txostena aurkeztuz (Kapital sozietateen legeko 253 artikulua).

Irabaziak egongo balira, ekitaldiko emaitza (129) ondorengo eran sailkatu edo banatuko litzateke.

TAULA 1: Enpresaren irabazien banaketa

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
129	Ekitaldiko emaitza	-	
11	Erreserbak		-
526	Dibidenduak		-

Iturria: Norberak egindakoa, “contabilidad de sociedades”-en oinarrituz.

Aldiz, galeren kasuan ezingo da era zehatz batean sailkatu, izan ere, galerak erreserbekin konpentsatu daitezkeelarik edota balantzean mantendu daitezke, etorkizunean lortuko diren irabazi edo erreserbekin konpentsatzeko.

Hortaz, bi kasu bereiziko dira:

TAULA 2: Galerak erreserbekin konpentsatzea

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
113	Borondatezko erreserbak	-	
129	Ekitaldiko emaitza		-

Iturria: Norberak egindakoa, “contabilidad de sociedades”-en oinarrituz.

TAULA 3: Galerak balantzean barneratzea

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
121	Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa	-	
129	Ekitaldiko emaitza		-

Iturria: Norberak egindakoa, “contabilidad de sociedades”-en oinarrituz.

Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Apariciok adierazitakoaren arabera, (2014) "Bestalde, normalean ekitaldiko emaitzan (129) ageri den zenbatekoa enpresaren irabazitzat hartzen da, baina, irabazi horiek beste azpi talde batzuetan barneratuta ager daitezke:

- *Aurreko ekitaldiko bestelakoak*, hau da, aurreko urtean partida zehatz batera banatu gabe geratu ziren irabaziak dira.
- *Eskuragarri dauden erreserbak.*"(pág. 190)

TAULA 4: Banaketaren oinarria

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
120	Bestelakoak	-	
(-)	Erreserba eskuragarriak	-	
129	Ekitaldiko emaitza	-	
11	Erreserbak		-
526	Dibidenduak		-

Iturria: Norberak egindakoa, "contabilidad de sociedades"-en oinarrituz.

Irabazien banaketa galerena baino konplexuagoa da, izan ere, galeren kasuan bi irtenbide besterik ez baitaude. Aurretik aipatu moduan, ekitaldi horretan lortutako galerak erreserbekin konpentsatu edo balantzean edukiz iraganeko erreserba edota irabaziekin konpentsatu ahal izateko. Irabazien kasuan aldiz, Kapital Sozietateen legeak zenbait artikulua hartzen ditu kontuan, irabaziak zenbait azpimultzotan barneratu daitezkeelarik.

1) Aurreko urteko galerak konpentsatzea

Ikusi dugun moduan, galerak aurreko urteetan lortutako irabaziekin konpentsatu daitezke. Hala ere, esan beharra dago konpentsazioa beharrezkoa ez den arren, kasuren batean, hain zuzen ere, 273.3 artikulua bigarren paragrafoan ematen den egoeratan, konpentsazioa beharrezkoa izango da.

"Aurreko ekitaldiko galerak egongo balira, eta honek enpresaren ondare garbia kapitalaren zenbatekoa baino txikiagoa izatea eragiten badu, irabaziak zuzenean galera horiek konpentsatzera bideratu beharko litzateke" (Kapital Sozietateen legea, 273.2. art)

TAULA 5: Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboaren konpentsazioa

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
129	Ekitaldiko emaitza	-	
121	Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa		-

Iturria: Norberak egindakoa, "contabilidad de sociedades"-en oinarrituz.

2) Erreserba legala

Bestalde, irabaziak legezko erreserbatara esleitzea derrigorrezkoa izango da, Kapital Sozietateen legearen Testu Bategineko 274. artikulua dioen bezala:

1. *Irabazien %10 a erreserba legalerara joango da, kapital sozialaren %20 a lortu arte behintzat.*

2. *Erreserba legalak, adierazitako muga gainditzen ez duten bitartean, galerak konpentsatzeko soilik erabil daitezke, horretarako nahikoak ez diren erreserba eskuragarriak egonez gero.*

Kontableki, erreserba legalera egindako emaitzaren banaketa horrela izango litzateke:

TAULA 6: Erreserba legalaren banaketa

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
129	Ekitaldiko emaitza	-	
112	Erreserba legala		-

Iturria: Norberak egindakoa, "contabilidad de sociedades"-en oinarrituz.

Zenbait kasutan, aurretik aipatutako sailkapena eraldatu daiteke. Hau da, ondare garbia kapital soziala baino txikiagoa denean, baina erreserba legala gutxieneko zenbatekora iristen ez denean. Halaber, irabaziak daudenean erreserba legalera zuzkitzea derrigorrezkoa denez, kasu hauetan lehendabizi irabaziak erreserba legalera zuzenduko dira eta ondoren galerak konpentsatzera bideratuko dira.

3) Beste erreserba legalak

Kapital Sozietateen legearen Testu Bategineko zenbait egoera gertatzen direnean erreserba bereziak emateko betebeharra ezartzen du.

- 148 artikulua arabera, sozietate nagusiaren akzioak eskuratzen dituztenean "sozietatearen akzio edo partizipazioetarako erreserbak" ematen dira.
- 149.1 artikulua arabera, betebeharrak bat betetzean konpainiak bere akzioak onartzen dituztenean "berme gisa onartutako erreserba propioak" ematen dira.
- 153 artikulua arabera, bi sozietateak elkarrekin akzioak badituzte "elkarrekiko partaidetzarako erreserba" ematen da.
- 335 artikulua arabera, onurak edo libreki erabilgarri dauden erreserben bidez kapitala murriztean "amortizatutako kapitalaren erreserba" ematen da.

TAULA 7: Bestelako erreserba legalen banaketa

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
129	Ekitaldiko emaitza	-	
1140	Sozietatearen akzio edo partizipazioentzako erreserbak		-
1144	Akzio propioetatik erreserbak		-
1145	Partizipazioetatik erreserbak		-
1142	Kapital amortizatuagatik erreserba KPOan kontuan hartzen ez den partida		-

Iturria: Norberak egindakoa, "contabilidad de sociedades"-en oinarrituz.

4) Dibidenduak

Kapital Sozietateen legearen Testu Bateginaren 273-277 bitarteko artikuluetan aipatzen den moduan, dibidenduak ekitaldiko irabazietara bideratu ahal izango dira, baita ere, eskuragarri dauden erreserbatara, beti ere, ondare garbiaren balioa ez denean edota banaketaren ondorioz bere zenbatekoa ez bada kapital soziala baino txikiagoa.

Ondorio hauen eraginez, zuzenean ondare garbira egotzi diren irabaziak ezingo dira ez zuzenean ez eta zeharka banatu.

Aurreko ekitaldiko galerak egongo balira eta horrek enpresaren ondare garbiaren zenbatekoa kapital sozialaren zenbatekoa baino txikiagoa izatea eraginez gero, irabazi horiek lehengo urteko galera horiek konpentsatzera bideratuko dira.

Bestalde, irabazien banaketa debekatuta egongo da, beti ere, eskuragarri dauden erreserben zenbatekoa gutxienez balantzearen aktiboan ageri den ikerketa eta garapen gastuen zenbatekoaren berdina ez bada.

Erantzukizun mugatuko sozietateetan, estatutuetan kontrakorik agertu ezean, bazkideen dibidendu banaketa kapital sozialera eginiko partizipazioen proportzioan egingo da. Sozietate anonimoen kasuan, dibidenduen banaketa akzioetara, bazkide bakoitzak despoltsatutako kapitalaren proportzioan emango da.

Dibidenduen ordaintzarekin jarraiki, dibidenduen banaketaren momentua eta modua Batzar Orokorrek zehaztuko du. Gainera, aurretik aipatutako bi datu horietakon bat faltako balitz, dibidendua ordaindu ahal izango da, hitzarmenaren urrengo egunetik hasita. Bestalde, dibidendu hori ordaintzeko epea 12 hilabetekoa izango da, Batzar Orokorrekin egindako akordioaren datatik hasita.

Azkenik, banatu daitezkeen dibidendu motak ditugu, aurretik aipatu moduan 5 mota ezberdin daude, baina oraingo honetan, konturako dibidenduen inguruko aipamen bat emango da. Izan ere, konturako dibidenduen zenbatekoa Batzar orokorrak edo administradoreak soilik adostu dezakete, beti ere, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- Administratzaileek kontabilitate egoeran, banaketarako nahikoa likidezia dagoela adieraziz, egoera hori ondoren memorian isladatuko delarik.
- Banatu beharreko zenbatekoak ezingo du azkeneko ekitaldiko emaitza, aurreko ekitaldiko gastuak kenduz eta legeak edo estatutuek ezarritako derrigorrezko erreserben zenbatekoa gainditu.

5) Administratzaileen parte hartzea

Kapital Sozietateen legeko Testu Bateginaren 218.2. artikulua dioenaren arabera:

“Sozietate anonimoan ordainsaria irabazietan egindako partizipazioaren gain dagoenean, onura likidoetatik soilik kendu daiteke eta legezko eta estatutuetako erreserben arreta estalita eta akziodunei %4eko dibidendua aitortu ondoren”.

Tradizionalki, ordainsari hau emaitzaren aplikazio gisa joan da kontabilizatzen. Hala ere, ICACek administratzaileen kuotaren inguruko galderari erantzunez, administratzaileen ordainsaria beharrezko gastu bat dela adierazten du irabaziak lortu ahal izateko. Hortaz, galdu irabazi kontuak, ekitaldiko sarrera eta gastu guztiak kontutan hartzen dituzenez, administratzaileen ordainsariak ere kontutan izan beharko ditu eta ordainsari horiek horrela kontabilizatuko dira:

TAULA 8: Administratzaileen kontabilizazioa eta ordainsariak

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
64X	Administratzaileen parte hartzea	-	
572	Bankua k/k		-

Iturria: Norberak egindakoa, “contabilidad de sociedades”-en oinarrituz.

Administratzaileen partizipazioak, gastu moduan kontabilizatzen dena, gastu fiskala ere izan daiteke, non oinarri zergagarria eta ordaindu beharreko mozkinen gaineko zergaren kuota murrizten duen.

Zenbaitetan, sozietatearen irabazietan langileak ere parte hartzen dute, kasu horretan, administratzaileentzat aurreikusten duten tratamenduaren berdina izanik.

6) Fundatzaileen bonoak

Kapital Sozietateen legeko Testu Bateginaren 27.1 artikulua, fundatzaileei abantaila ekonomiko batzuk gortzen dizkie ondorengo ezarriz:

“Sozietate anonimoko estatutuetan, enpresako sortzaile eta sustatzaileek eduki ekonomikoko eskubide bereziak erreserbatu ditzakete. Bere izaera edozein dela ere, ezin izango du balantzean lortutako irabazi garbien %10a gainditu, erreserba legalaren kuota bideratutakoan eta 10 urteko epean gehienez ere”.

Administrazioen ordainketarako ICACek proposatutako tratamenduarekin bat etorrituz, gastu gisa erregistratu beharko da:

TAULA 9: Fundatzaileen bonoen banaketa

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
64X	Fundatzaileen partizipazioak	-	
572	Bankua k/k		-

Iturria: Norberak egindakoa, “contabilidad de sociedades”-en oinarrituz.

Hala ere, fundatzaileen partaidetza irabazietan, fiskalki ez da gastutzat hartzen kontabilitate emaitza eta emaitza fiskalaren artean diferentzia iraunkor bat sortuz.

7) Beste aplikazio batzuk

Legezko eta estatutuetako arreta guztiak estalita daudenean, eta irabazien zati bat dibidenduen ordainketarako esleitu bada, gainerakoa 113 kontura bideratuko da “borondatezko erreserbak” eta aplikatu gabe geratzen diren irabaziak 120 kontura eramango dira “gainerakoa”.

TAULA 10: Bestelako aplikazioak

KODEA	KONTUA	ZOR	HARTZEKO
129	Ekitaldiko emaitza	-	
(-)	Erreserba legala edo estatutuak		-
526	Dibidenduak		-
113	Borondatezko erreserbak		-
120	Gainerakoa		-

Iturria: Norberak egindakoa, “contabilidad de sociedades”-en oinarrituz.

VIII. DIBIDENDUAK

2010eko uztailaren 2ko 1/2010 errege dekretua, Kapital Sozietateen legearen 275, 276, 277 eta 278. artikuluen arabera:

Erantzukizun mugatuko sozietateetan, estatutuetan kontrakorik esan ezean, dibidenduen banaketa bazkideek kapital sozialean duten partaidetzaren proportzioan emango da. Sozietate anonimotan aldiz, akzioen dibidenduen banaketa, despoltsatu duten kapitalaren proportzioan emango da. Hortaz, enpresak lortutako irabazietatik akziodunei banatzeko bideratzen den zatiari, dibidendua deritzo.

“Dibidenduaren zenbatekoa, modua eta momentua Akziodunen Batzar Nagusian onartu behar da, administrazio kontseiluaren proposamenean” (Vázquez Burguillo, 2019). *Administrazio kontseilua*, sozietate anonimo zein erantzukizun mugatuko sozietateko administrazio organoa izan daiteke, erakunde bat kudeatzen duen zuzendaritza taldeari dagokio eta akziodunek hautaturiko arduradunetz osaturik dago. Berezitasun horiekiko erabakirik egon ezean, dibidendua akordioaren hurrengo egunean egoitzan ordaindu beharko da. Dibidenduen ordainketa osorako gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da, batzar orokorraren akordio datatik hasita.

Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Apariciok dioenez, (2014) “Enpresak ekitaldiko irabazien kontura dibidenduak banatu ditzake, ekitaldia bukatu aurretik edota ondoren, Batzar orokorra ospatu aurretik eta ordaindu beharreko behin betiko dibidendu aktiboaren zenbatekoa onartu aurretik” (pág. 15).

“Dibidenduaren banaketa politikari dagokionez, funtsezkoa da enpresak irabaziak lortzeko duen gaitasuna eta horiek lortzeko duen arriskuak aztertzea. Normalean, enpresa batek inbertsio aukera ugari dituenean, dibidendu banaketa gutxitzen da, finantziario iturri gehiago dituelarik, nahiz eta ez den komenigarria izango akziodunen kontuetan aldaketa nabarmenak adieraztea” (Vázquez Burguillo, 2019).

Bestalde, Batzar orokorrak edota administratzaileek bazkideen artean dibidenduak banatu ditzakete, beti ere, ondorengo baldintzak kontuan edukiz:

- a) Administratzaileek kontabilitate egoera bat aurkeztu behar dute, bertan banaketarako nahikoa likidezia dagoela islatuz. Egoera hau geroago memorian barneratu behar delarik.
- b) Banatu beharreko zenbatekoak ezin du azken urteko ekitaldian lortutako emaitzaren zenbatekoa gainditu.

“129 kontua “Ekitaldiko emaitza”, balantzeko ondare garbian agertzen da bere zenbatekoa konturako dibidendutik kendu gabe, hortaz, beharrezkoa izango da 557 kontua agertzea ikur negatiboarekin, balio garbi moduan banatzeko dagoen ekitaldiko emaitzaren zenbatekoa izanik” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 15).

Sozietate batek banatu ditzakeen dibidenduak mota honetakoak izan daitezke (Vázquez Burguillo, 2019):

- 1) Konturako dibidenduak: “Akziodunei bere kontu korrontean sartzen dieten saria edo irabazia, lortzen den prestazioaren (Irabaziaren) aurretik.”
- 2) Dibidendu osagarria: “Konturako dibidenduari gehitzen zaion zatia.”
- 3) Aparteko dibidendua: “Aparteko prestazioak izan direnean banatzen diren dibidenduak dira.”
- 4) Dibidendua akziotan: “Dibidendu hau akziotan banatzen da, dirutan banatu ordez”. Enpresaren partetik, akziodunen konpentsazio alternatiboa da, kapital soziala areagotzeko helburuarekin.

- 5) Dibidendu finkoa: “Enpresak ezartzen duen dibidendua da, lortutako irabaziak edozein direla ere.”

IX. BESTELAKO ONDARE TRESNAK

Azpitalde honetan, finantza tresnak barneratzen dira, hain zuzen ere, akzioak bihurtzeko bonuen jaulkipena.

Apartatu honetan, 1110 kontuaren bitartez, finantza tresnak jasotzen dira “finantza tresna konposatuaren jaulkipenaren balio garbia”. Bereziki, akzioak bihurtu daitezkeen obligazioen jaulkipena.

1111 kontuak, “gainerako ondare tresnak” gainerako kontuetan barneratzen ez diren ondare garbiko tresnak hartzen ditu, esate baterako, akzio propioen aukerak.” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, págs. 15-16)

b. BALIO ALDAKETAGATIK DOIKUNTZAK

I. AKTIBO FINANTZARIO ERABILGARRIEN SALMENTA

Atal honetan, “salmentarako prest dauden aktibo finantzarioen doikuntzak barneratzen dira, hau da, kategoria honetan sailkatutako aktibo finantzarioak bere arrazoizko balioan baloratzu sortutako doikuntzak.” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 16)

Doikuntza hau saldo zorduna edo hartzekoduna izan daiteke.

II. ESTALDURA ERAGIKETAK (operaciones de cobertura)

Hemen jasotzen da, “estaldura eraginkor gisa zehaztu diren tresnak izan dituen irabazi edo galerak, estaldura kutxa fluxuen kasuan.” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 16)

Kasu honetan ere, saldo zordun gisa edota hartzekodun gisa hartu daiteke.

III. BESTELAKOAK

“Zerga onurak hemen erregistratzen dira, diru laguntzen izaera ekonomiko onargarria izateagatik sortutako diferentzia iraunkorrak, kenkariak eta hobariak, galdu irabazi kontuan egotzi behar direlarik.” (Fernández González, Álvarez Carriazo, & Romano Aparicio, 2014, pág. 16)

Oinarri zergarria kalkulatu ahal izateko, zerga aurreko emaitzaren gain egindako doikuntzak barneratu beharko dira.

Oinarri zergagarri horren gain, zerga tasa bat aplikatzen da kuota gordina zenbatekoa den jakiteko. Behin kuota gordinaren zenbatekoa jakinik, zerga ondorengo emaitza kalkulatzeko aukera dugu. Hau da, doikuntza hauek zerga aurreko emaitzari aplikatu behar zaizkio.

Zerga aurreko emaitza, sarrera eta gastuen arteko diferentziarekin kalkulatzen da. Normalean, sarrera eta gastu hauek emaitza kontablea zein fiskala kalkulatzeko erabiltzen direlarik.

Zerga gastua kalkulatzekoan, aldaketa batzuk ager daitezke arau fiskalaren ondorioz:

Hona hemen kontabilitatean gastu edo sarrera gisa barneratutakoak, baina fiskalki onartzen ez direnak edo aurkakoak:

- Diferentzia iraunkorrak: Zerga aurreko emaitza kontablearen eta oinarri zergagarriaren artean sortzen dute eta ondorengo ekitaldietan ez dute eragiten. Oinarri zergagarria osatzeko sarrera eta gastuen kontsiderazio desberdina egon daitekeen neurrian, etorkizunean zerga eraginik izango ez badu, gertatzen diren ekitaldian zerga gehiago edo gutxiago ordaintzea suposatuko dute.
- Kenkariak: Ogasun publikoak, jarduera edo ekintza berezi batengatik abantaila fiskal bat ematea, horrek, fiskalki aplikagarria den ekitaldiko zerga-gastu txikiago bat suposatuko duelarik.
- Denborazko diferentziak: Sarrerak eta gastuak noiz egotzi irizpidean daudenean, doikuntza negatibo edo positiboa sortu dezake.
- Galeren konpentsazioa: (Kontabilitate zergan eraginik ez duten politika fiskalak). Zergaren eraginetarako, ekitaldi batean lortutako galerak etorkizuneko mozkinen aitortenean konpentsatu ahal izango dira ekitaldi horretan zerga gutxiago ordainduz. Kontableki, ordea, ekitaldi bakoitzeko emaitzak ez dauka beste ekitaldietako emaitzekiko loturarik.
- Kenkariengatik eskubidea: Kenkaria aplikatzeko eskubidea izatea, baina ordaintzeko kuota txikiagia izateagatik fiskalki aplikatu ezingo balu, zerga gastua dagokion kopuruan murriztea eta aplikatzeko dauden kenkariengatik eskubidea islatuko du.

c. JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA DOHAINTZAK

2007ko azaroaren 16, 1514/2007 errege dekretuan adierazten den moduan, bazkide edo jabeak ez diren hirugarrenek emandako itzulgarriak ez diren diru laguntzak, donazio eta legatuak, enpresaren ondare garbian barneratzen dira A-3 azpitaldean, hain zuzen ere. Gainera, galdu irabazi kontura transferituko dira irizpide sistematiko eta diru laguntzen ondorioz sortutako gastuak, adibidez, ibilgetu material baten amortizazioaren proportzio berean.

Aldiz, bazkide edo jabeek emandako eta itzulgarriak ez diren diru laguntza, donazio eta legatuak ondare garbian barneratzen badira ere, hauek fondo propioen barruan erregistratzen dira, A-1 barnean.

Diru laguntza bat ez itzulgarritzat hartzen da, enpresaren alde diru laguntza bat emateko hitzarmen bat dagoenean, hitzarmeneko baldintzak bete badira eta diru laguntza, donazio edo legatuaren harreran inolako zalantzarik ez dagoenean.

KPOak adierazten duen moduan, administrazio publikoek emandako diru laguntzak, nazionalak zein internazionalak enpresako establezimendu edo egitura finkoetarako direnak, 130 kontuan barneratzen dira eta enpresa edo partikularrei emandako diru laguntzak 131 kontuan.

Etorkizuneko gastuak sortzen dituzten programak finantzatzeko diru laguntzak 132 kontuan islatzen dira. (Real decreto 1514/2007, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad, 2007)

Diru laguntzat hartzen dira, edozein interes fisiko edo juridikoren alde egiten duen edozein jarduera sozial edo portaerak.

4. ONDARE GARBIAIN DESOREKA DUTEN ENPRESEN AZTERKETA

Zati teorikoari amaiera eman ostean, zati praktikoari ekingo diogu. Izan ere, balantzea osatzen duen ondare garbiaren inguruko analisia eta azterketa egin ondoren, autofinantzaketarako arazoak dituzten enpresak aztertuko ditugu.

Hain zuzen ere, ondare garbiaren desoreka egoeran dauden enpresak aztertuko ditugu. Kasu honetan dauden enpresak, bere ondare garbiaren balioa kapital sozialaren herena edo erdia baino gutxiago dutelako da, hau da, metatutako galerak fondo propioak murrizten dituztenean kapital sozialaren zenbatekoaren herena edo erdia baino gehiago murriztuz. Beraz, enpresa horiek ondare garbiarekiko arazoak izango dituzte eta hortaz, aztertutako elementu guztiak barneratu ondoren, enpresa hauen egoera aztertzen jardungo dugu, nolatan heldu diren egoera honetara, bai eta, zeintzuk lortu duten egoera honi aurre egitea.

Horretarako, urte jakin batean egoera horretan zeuden enpresak begiratuko ditugu eta horiek gaur egunera arte izan duten bilakaera aztertuko dugu. Zehaztutako urte hori 2015 urtea izango dela zehaztu dugu, batez ere, gaur egunera arte izan duen bilakaera ikusi ahal izateko.

Nahi dugun informazio hau berreskuratu ahal izateko SABI datu basea erabili dugu, hala ere, datu base hau zer den aurrerago azalduko dugu.

4.1. Ondare garbiaren desoreka zer den adieraztea legeak dioenarekin kontrastatuz

2010eko uztailaren 2ko 1/2010 errege dekretuan Kapital Sozietateen legeak 363.1 d artikuluan, enpresaren ondareak kapital sozialaren %50 baino handiagoa izan behar duela dio, izan ere, ondare garbiaren zenbatekoa kapital sozialaren %50 baino txikiagoa bada, enpresa desegiteko arrazoietakoa bat izan daitekeela ezartzen du, beti ere, kaudimen gabeziaren eskaera egokia ez denean. Hau sozietate anonimo zein erantzukizun mugatuko sozietateentzat aplikagarria izango da.

Egoera finantzario orekatuaren analisia burutzeko, OG ondorengo eran kalkulatu da (Argote Ibáñez, A.; Corral Lage, J.r; Ipiñazar Petralanda, I.; Peña Miguel, N.; Temprano Gutiérrez, V.; Zubiaurre Artola, M., 2014):

$OG^* = OG \text{ (balantzekoa)} + KS \text{ harpidetuta baina despoltsatu gabe dagoena} + \text{pasibotzat sailkatzen den KS eta Prima} + \text{Partaidetza zorrak}$

Administratzaileek enpresaren egoera ezagutzen dutenetik 2 hilabeteko epea izango dute akziodunen batzarrerako deialdia egiteko, horiei zenbait irtenbide emanaz. Ondoren, akziodunen batzarrak beste bi hilabeteko epea izango du, egoera horri aurre egiteko edota konpontzeko, proposatutako neurriak ezartzeko. (Belzuz abogados)

Kontuan hartu behar da epe hori enpresaren ondare garbian desoreka aurreikusten den momentutik hasten dela eta ez ekitaldia itxi zenetik.

2010eko uztailaren 2ko 1/2010 errege dekretuan Kapital Sozietateen legeak 363. artikuluan adierazten den moduan desegiteko bidea hartu beharrik izan gabe, onar daitezkeen beste aukera batzuk eman daitezke desoreka hori berrantolatzea ahalbidetzen dutenak. Aukera hauek kapital soziala haunditu edo murriztea dute helburutzat, horren ondorioz, kapital soziala eta ondare garbiaren arteko erlazioa orekatuz.

Ondare garbian desoreka zer den jakin ondoren bi multzo bereiziko ditugu, non bertan, ondare garbiari eragiten dioten eragiketak eta sozietatearen oreka berreskuratzeko beste politika ekonomiko finantzarioak aipatuko diren. Azken honetan, pasiboari, aktiboari eta galdu irabaziari eragiten dioten akzioak barneratzen dira, eta hau soilik aplikagarria izango da $OG < \frac{1}{2} KS$ egoerara iritsi ez diren enpresentzat desorekari aurre egiteko beste aukera batzuk izanik:

1) Ondare garbiari eragiten dioten eragiketak:

- *Kapital zabalkuntza*: Kapital zabalkuntza, enpresa batek duen kapital soziala handitzea oinarritzat duen eragiketa bat da.

Kasu honetan, legezko arrazoiak direla eta, enpresak kapitala handitzea erabaki dezake, enpresa batek galerak jasan eta bere ondare garbia kapital sozialaren zenbatekoaren azpitik egotea eragin duelarik, Kapital Sozietateen legearen Testu Bateginaren 363.artikuluaren arabera. Kasu hau ematen bada, sozietateak kapital zabalkuntza bat burutu dezake, disoluzio hori saihestuz.

Gainera, Kapital Sozietateen legearen Testu Bateginaren 296.1 artikuluan adierazten duen moduan, kapital zabalkuntza batzorde orokorrarekin adostu beharko da, sozietatearen estatutuetan ezarritako baldintzak kontuan hartuz.

Kapital zabalkuntza hori, titulu berrien jaulkipena emanaz egin dezake jaulkipenaren prezioaren arabera, jaulkipen prima eskatuz eta tituluak bere balio nominalaren gainetik ezarriz. Hau da, Kapital Sozietateen legearen arabera, partizipazio berriak sortuz edota akzio berriak emitituz edota lehendik daudenenen balio nominala handituz ere burutu dezake kapital zabalkuntza hori.

Hala ere, kapital zabalkuntza akzioen balio nominala handituz burutzen denean, akziodun guztien baimena beharrezkoa izango da, azken balantzean agertzen diren onurak edo erreserbak burutzen baditu salbu Kapital Sozietateen legearen 296.2 artikuluen arabera.

- *Kapital murrizketa*: Kapital murrizketa, kapital zabalkuntzaren kontrako eragiketa da, kasu honetan, kapital soziala gutxitzea duela helburutzat. Hortaz, estatutuetan aldaketa eragingo du bertan kapital sozial berria ezarriz.

Kapital murrizketaren erabakia sozietatearentzat eta bazkideentzat garrantzitsua izateaz gain, hartzekodunentzat ere ondorioak ekar ditzake.

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 317. artikuluan adierazten duen moduan, kapital murrizketa akzioen balio nominala murriztuz edo akzioak amortizatuz egin daiteke. Hala ere, kapital murrizketa bat burutzean Batzar Orokorrarekin akordatu eta honek onartu egin beharko du, eta aldaketa horrekin batera estatutuak aldatu beharko dira.

Bestalde, enpresak murrizketa hau borondatez egin badezake ere, beste zenbaitetan kapital murrizketaren erabakia legez derrigortuta dagoelako hartu beharko du. Borondatezko kasuan, bere interes propioengatik izan daiteke, erreserba legalak handituz edo helburu sozialaren garapenerako, kapitalaren zenbatekoa gehiegizkoa bada. Aldiz, legez derrigortuta ondorengo kasuetan egongo da:

- ❖ Baliabide propio gehiegi dituztelako eta hortaz, bazkideari ordainketa gisa emateko.
- ❖ Metatutako galerei aurre egiteko.

Borondatezko kasuan, akziodunek emaitza negatiboari aurre egiteko aukera izango dute. Hala ere, ondoren aipatuko ditugun kasuak ematen diren bitartean, ezingo da kapital murrizketarik burutu:

- Erantzukizun mugatuko sozietateren batean erreserbak dauden bitartean ezingo da murrizketarik burutu, kapital sozietateen legean 322.1 artikuluan ageri den moduan.
- Sozietate anonimoen kasuan aldiz, borondatezko zein legezko erreserbaren zenbateko erabilgarriak dauden bitartean ere, ezingo da inon murrizketarik burutu (kapital berrien %10 gainditzen duen zenbatekoa) 322.2 artikulua arabera.

Derrigorrezko kasuan, Sozietate anonimoetan galeren ondorioz, ondare garbia kapitalaren 2/3 baino gutxiago izatea lortu bada, eta ondare garbirik ez bada lortu ekitaldi bateko epean, kapital murrizketa derrigorrez egin beharko da 327. artikulua esanetan.

- ❖ Akzio propioak merkaturatu ezin direnean ondorengo arrazoiengatik

Argote Ibáñez, A.; Corral Lage, J.r; Ipiñazar Petralanda, I.; Peña Miguel, N.; Temprano Gutiérrez, V.; Zubiaurre Artola, M. (2014) adierazi zuten moduan, sozietateak kapital murrizketa honen bitartez, enpresak metatutako galerak estaltzeko helburua izango du.

Aurretik aipatu moduan, eragiketa hau bi kasutan erabili daiteke. Batetik, borondatezko kasu baten aurrean edota ondarearen desoreka larri baten aurrean legez derrigortuta.

Hortaz, enpresak egoera orekatua duen edo ez, eta gainera kapital murrizketa hau derrigorrean egin behar duen edo ez ikusteko, ondorengo analisia burutu beharko du:

- $OG < 2/3KS$ kasuan, S.A.-ek derrigorrez urte beteko epea izango dute desoreka egoeratik irteteko, kapital soziala murriztuz edo zabalduz, alegia. Urte beteko epe hori igaro ondoren egoera orekatzea lortu ez badute, enpresek derrigorrean kapital soziala murriztu egin beharko dute, kapital sozietateen legearen testu batekin 327.artikuluan adierazten duenez.
- $OG < 1/2KS$ duten enpresen egoera larria ikusita, derrigorrez egoera horri aurre egin beharko die, aurreko kasuan ematen den moduan KS zabalduz edo murriztuz, hau burutzen ez badute enpresaren disoluzioa burutu beharko delarik, kasu honetan, kapital sozietateen legearen testu batekin 363.artikuluan adierazten duen moduan.
- *“Aldibereko murriztapen luzapena (“akordeoiaren luzapena”): Kapital soziala zerora murriztea eta aldi berean, legezko gutxienekoa baino handiagoa edo berdina den zenbatekoa lortzea. Akordeoiaren funtzionamendu honetan, galeren konpentsazioa kapital gehikuntza batez ematen da, akzio edo partizipazio berrien jaulkipena burutuz, enpresaren etorkizunean konfiatzen duten bazkide zein akziodunek harpidetzen dituztelarik edota hirugarren inbertitzaile batzuek, hauek ekarpen berriak egin ezin dituzten bazkide zein akziodunei ordezkatzeko dietelarik.”* (Abogados CE Consulting, 2016)

- “Ondarea berritzea bazkide zein akziodunen ekarpenen bidez: Enpresaren finantza oreka ahalbidetzen du, kapital sozialaren zenbatekoa handitu beharrik izan gabe eta bazkideen partizipazioetan eragin gabe.” (Abogados CE Consulting, 2016)
- *Parte hartzeko mailegua*: Kapital maileguaren ordainsaria, enpresa maileguaren bilakaeraren arabera aldakorra da. Batzuetan, mailegu hau ondare garbian emandako desoreka konpontzeko erabiltzen da, parte hartzeko maileguarekin lortutako zenbatekoa ondare garbiaren balioan sartuko baita, kapital murrizketaren efektuetan hain zuzen eta merkataritzako legedian aurreikusitako enpresen likidazioan.
- *Enpresa disolbatzea*

2) Sozietatearen oreka berreskuratzeko beste politika ekonomiko finantzarioak

Pasiboari eragiten dioten akzioak

Bertran Codina, Lloret Villota, & Lorente Sibina, 2019an honako puntuak argitaratu zituzten:

- Enpresak bazkide zein hartzekodunetik datozen fondo propioak areagotzen saiatu behar du, horren bidez, fondo propioak handitzen dituelarik. Besteak beste, Kapital zabalkuntzaren bidez lortu dezake, aurreko puntuan adierazi moduan.
- Epe luzeko finantzaketa handitzea. Hau da, epe luzeari begira finantzaketa handitzeko, enpresak bermatutako maileguak eskatu behar ditu, bai eta epe luzeko kredituak edota taldekoak diren beste enpresen finantzaketa lortzen saiatu ere, horrela fondo propioak areagotuz.
- Hazienda eta gizarte segurantzako ordainketa epearen atzerapen eskaeraren bitartez, edota deskontu eta polizen bitartez, enpresak epe laburreko finantzaketa handitzea lortzen du.
- Hornitzaileekin akordioak. Hau da, lehengaiak erosten direnetik ordaindu arte igarotzen den denbora luzatzea, horrela, hornitzaileei ordaintzeko epea luzatuz.

Aktiboari eragiten dioten akzioak

Bertran Codina, Lloret Villota, & Lorente Sibina (2019) diotenaren arabera:

- Beharrezkoak ez diren aktiboen salmenta edo alokairua, guztirakoa edo partziala izan daitekeelarik.
Beharrezkoa ez den aktiboen analisia, denbora eremu jakin batean beharrezkoak bihurtu daitezke bideragarritasun planaren arabera: Posible izango balitz, alokatu egiten dira. Egoera hau ezinezkoa izango balitz, egokiena balantzean aktibo ez moduan mantentzea izango litzateke, kontserbatu ahal izateko.
- Soberakin salmentak, hau da, izakinak saltzea alegia.
Lehengaien, materialen eta amaitutako produktuen bolumen optimoa.

- Bezeroekin akordioak. Hau da, bezeroekin duen kobroaren batz besteko epea murriztea. Salgaiak saltzen diren unetik kobratzen den arte igarotzen den denbora hori murriztea, alegia.

Galdu irabaziari eragiten dioten akzioak

Bertran Codina, Lloret Villota, & Lorente Sibina (2019) adierazitakoaren arabera:

- Kostu orokorrak murriztea, enpresari dagozkion galerak gutxituz.
- Produkzio prozesuaren edo zerbitzuen hornikuntza optimizatzea. Hau da, lehengaiak erosten diren unetik, lehengai horiekin ekoiztutakoa kobratu arte igarotzen den denbora murriztea, batz besteko heltze aroa murriztuz.

5. ENPRESEREN ANALISIA

Behin ondare garbiaren desoreka zer den eta bere irtenbideak zein diren jakin ondoren, egoera hori izan zuten enpresak aurkitu eta analisiari ekingo diogu.

Aurretik aipatu moduan, ondoren egingo dugun azterketa 2015 eta 2017 urteren buruan ematen da. Lehenik eta behin, Espaini mailan, Euskal Autonomi Erkidego mailan zein Gipuzkoan 2015ean zeuden enpresen arteko alderaketa emanaz eta ondoren, datu horiek 2017ko datuekin konparatuz. Datu horiez gain, zeuden enpresa guzti horietatik ondare garbian desoreka zuten enpresak sailkatuko ditugu, hau da, ondare garbia kapital sozialaren 2/3 baino txikiagoa zutenak, alegia. Gainera, gure analisia zehatzagoa izate aldera, kapital sozialaren 1/2 baino txikiago zuten enpresak ere sailkatuko ditugu, euren egoera larriaz jorratu eta irtenbideak aztertze arren.

Datu hauek, SABI datu basearen bitartez lortu ditut. "SABI (sistema de análisis de balances ibéricos) INFORMAK Bureau Van Dijk-ekin lankidetzan garatutako web tresna bakarra da. 2,5 miloi enpresa espainiar baino gehiago eta 800.000 enpresa portuges baino gehiagoren informazio orokor eta urteko kontuak modu azkar batean kudeatzeko aukera ematen du." (SABI)

"SABI finantza analisian eta marketin estrategikoan funtsezko tresna da, bere estaldura zabala, estatu finantzarioen estandarizazioa, softwarea manipulatzeko erretasuna eta informazioa eskuratzeko eta ustiatzeko duen malgutasunagatik bereizten da. Enpresa baten lan estrategikoa errazten duen tresna da, irizpideen konbinazioen arabera sailkatutako enpresen bilaketa motor gisa" (SABI)


Hortaz, azaldutako datu base hau erabiliz hainbat datu bilatu eta lortuko ditugu. 2015 urtean, ondare garbian desoreka zuten enpresak bai eta 2017an zeudenak ere, Espainia mailan, Euskal Autonomi Erkidego mailan bai eta Gipuzkoa mailan ere, hauek ere, konparaketa txiki baten bidez hobeto ikusi ahal izateko.

Hala ere, hasiera batean ikuspuntu global batetik mintzatuko bagara ere, aurrerago Gipuzkoako enpresa indibidualetan zentratuko gara, hain zuzen ere, ondare garbian desoreka zuten enpresetan. Lagin kopuru zehatz bat hartuz eta horien urteko kontuak, ratioak, errentagarritasun ekonomikoak, etab. aztertuz, hauek 2015ean zuten egoera larriari aurre nola egin zien ikusiz.

Datuen interpretazioekin jarraiki, esan beharra dago (SABI datu basearen arabera hartutako datuak, enpresa batzuk ez bait daude SABIn jasota eta hortaz, horietaz ez dakigu ezer) Espainian 2015 urtean 16.636 enpresa zeudela, non horietatik 948 Euskal Autonomia Erkidegokoak ziren eta zehazki 363 Gipuzkoakoak. Aldiz, ikus dezakegu 2017an Espainian 15.157 enpresak osatzen zutela, hortaz, bi urte hauetan zehar enpresa kopurua murriztu egin zen 1.479 enpresa gutxiago egonik. Murrizketa horren

arrazoiak hainbat izan daitezke, adibidez, enpresa batzuk itxi egin behar izan zutelako beren egoera larria zela eta, beste batzuk beste enpresa batzuekin bateratu zirelako enpresa bakarria sortuz, etab. Hala ere, 2017an Espainian enpresa kopurua totala murriztu bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko proportzioa antzekoa mantendu zen 2017an 877 enpresa egonik Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 339.


Grafikoa 1: Espainian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 2015 eta 2017 urtean zeuden enpresa kopurua



Iturria: Norberak egindakoa, Sabi datu basetik hartutako datuak

Finantza desorekari dagokionez, kapital sozialaren 2/3 baino gutxiago zuten enpresen inguruan, 2015ean Espainian 2.215 enpresa zeuden egoera larri horretan %13,31, horietatik 93 Euskal Autonomia Erkidegokoa izanik, 38 Gipuzkoakoak, besteak beste. Hau da, egoera larri horretan zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak %4,19a hartzen zutelarik. 2017 urtean 1.832 (%12,08) enpresa zeuden eta hortaz, diferentzia txikia bada ere, 2015 urtearekiko alderatuz, %1,23ko diferentzia egonik esan zitekeen 2017an egoera larri honetan zeuden enpresak gutxiago zirela, 1.832 horietatik 40 Gipuzkoan kokatzen zirelarik.


Grafikoa 2: Espainian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 2015 eta 2017 urtean ondare garbian desoreka larria zuten enpresa kopuruaren konparaketa



Iturria: Norberak egindakoa, Sabi datu basetik hartutako datuak

Gainera, egoera larri horretan zeuden enpresetatik oraindik egoera arriskutsuago batean zeuden enpresak barneratzen ziren. *Ondare garbia* < 1/2 kapital soziala baldintza betetzen zuten enpresak, arazo haundiak zituzten beren etorkizunean aurrera egin ahal izateko. 2015 urtean, espainian 1.815 enpresa zeuden eta horietatik 30 Gipuzkoakoak ziren. Aldiz, 2017an 1.453 enpresa eman ziren, non 28 Gipuzkoarrak izanik.

Grafikoa 3: Espainian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan 2015 eta 2017 urtean ondare garbian desoreka oso larria zuten enpresa kopuruen konparaketa



Iturria: Norberak egindakoa, Sabi datu basetik hartutako datuak

Behin irakurketa orokor hau egin ondoren, aurretik aipatu moduan, lagin bezela 10 enpresa hartuko ditugu. Izan ere, emandako datuak ikusi ondoren, 2015ean Gipuzkoakoak diren eta ondare garbian desoreka egoeran zeuden enpresak 38 ziren eta hortaz, horiek denak banan banan aztertzea gehiegizkoa denez, 10 enpresa sakonago aztertzea erabaki dugu. Horietatik, Gipuzkoako 5 enpresa *Ondare garbia* < 2/3 kapital soziala egoeran aurkitu zirenak izango dira eta Gipuzkoako beste 5 enpresa egoera larriago batean, *Ondare garbia* < 1/2 kapital soziala hain zuzen.

Analisian bere errotazio fondoa (EF) deritzona aztertuko dugu. Aldagai honen bitartez, enpresak egoera bat edo beste bat izan dezake. Hain zuzen, EF+ izanez gero, epe laburreko inbertsioak finantzatu ahal izateko, epe luzeko finantza iturrietako zati bat erabiltzen da. Epe luzeko finantza iturriak epe luzeko inbertsio guztiak eta epe laburreko inbertsioen zati bat estaltzeko gai dira. Kostu ekonomiko garrantzitsua sortzen dio enpresari, baina, aldi berean autonomia eskaintzen dio. Aldiz, EF- edukitzeak, pasibo korronteak aktibo korronte osoa finantzatu ondoren finantzatzen duen aktibo ez korrontearen zatiari deritzo. Ikur negatiboak arrisku finantzarioa sortzen du enpresan, tentsioak diruzaintzan, ordaindura etendura teorikoa, behar bada nire epe laburreko zorrak ordaintzeko aktibo ez korronteak saldu behar izatea, etab. Beraz, desoreka finantzario edo egoera ez egonkor bat adierazten du. Etorkizuneko ordainketa etenduraren isla izan daiteke, epe laburreko zorrei erantzuteko arazoak dituela adierazten baitu.

Ratioei dagokienez, enpresak bere baliabide propioekin aurre egiteko duen gaitasuna, duen zor maila, erabilgarri duen diru likidoa etab. ikusi ahal izango ditugu.

Bestalde, errentagarritasun ekonomikoarekin aktiboaren errentagarritasuna neurtuko genuke. Hau da, enpresak sortutako mozkinak, enpresan inbertitutako euro bakoitzeko aktiboek sortzen duten mozkinak, alegia. Kontuan hartu gabe erabilitako finantza iturriak, aktiboan inbertitutako 100 moneta unitategatik lortzen den errentagarritasuna.

Azkenik, analisia bere osotasunean aztertu ahal izateko, batz besteko heltze aroa ere kalkulatu dugu. Aldagai honek, salgaiak erosi, saldu eta kobratu arte igarotzen den denbora adierazten du. Horretarako, enpresa industrialen kasuan, lehengaien biltegiatze epea, ekoizpen epea, produktu bukatuen biltegiatze epea eta kobro epea kalkuluak beharrezkoak izango dira. Aldiz, enpresa komertzialen aurrean egonez gero, salmenta epea eta kobro epearekin nahikoa izango da.

Horrekin loturik, UEFB garbia kalkulatzeko aukera ere ematen da, eta horretarako ordainketa epea kalkulatu beharko da, batz besteko heltze aroari ordainketa epea kenduz lortzen den emaitzari deitzen bait zaio.

Beraz, analisiari ekingo diogu hauek izanik bilatu eta aztertuko ditugun enpresak:

- *Ondare garbiaren desoreka duten enpresak $OG < 2/3KS$ kasuan*

1) KARAKATE SA

1.1 Balantzea

TAULA 11: Karakate enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	68.095	53.473	ONDARE GARBIA	198.920	410.635
Aktibo korrontea	1.244.068	1.517.870	PASIBOA	1.113.243	1.160.708
AKTIBO TOTALA	1.312.163	1.571.343	Pasibo ez korrontea	522.889	71.100
			Pasibo korrontea	590.354	1.089.608
			OG+PASIBOA	1.312.163	1.571.343

Iturria: Sabi datu basetik hartutako datuak

OG < 2/3 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{198.920}{366.587} = 0,542 < 0,66$$

$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{410.635}{366.587} = 1,12 > 0,66$$

Desorekatik irtetea lortu

1.2 Errotazio Fondoa

$$EF_{2015} = (Pek+OG) - Aek = (522.889+198.920) - 68.095 = 653.714$$

$$EF_{2015} = Ak - Pk = 1.244.068 - 590.354 = 653.714$$

Aek:%3,4	EF	OG+Pek:%30,65
Ak:%96,59		Pk:%69,34

Aek:%5,18	EF	OG+Pek:%55
Ak:%94,18		Pk:%44,99

$$EF_{2017} = (Pek+OG) - Aek = (71.100+410.635) - 53.473 = 428.262$$

$$EF_{2017} = Ak - Pk = 1.517.870 - 1.089.608 = 428.262$$

2015 urtean, errotazio fondoa positiboa zen eta beraz, enpresa ez zegoen finantzaketa desorekatu baten aurrean, hau da, aktibo korrontearen zati batek ondare garbia gehi pasibo ez korrontearen zati bat finantzatzeko zuten.

2017an, egoera berdina eman zen. Hau da, enpresak ez zuten ordainketa etenduraren arriskurik. Kasu honetan ere, aktibo korrontearen zati batek ondare garbia gehi pasibo ez korrontearen zati bat finantzatu zuen.

Epe luzeko zein laburreko ratioak ere azaldu beharko ditugu eta hortaz, analisiari ekingo diogu.

1.3 Ratioak

TAULA 12: Karakate enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	0,1302284	0,75208158
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	1,17868516	1,35377976
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	5,59643575	2,82661731
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	0,17868516	0,35377976
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	2,10732544	1,39304227
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,128	0,171

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Hau dena aztertu ondoren, ondorioztatu dezakegu enpresa honen sendotasun maila oso baxua zuela, horrek epe luzeko zor asko edukitzearen arriskua izanik. Hortaz, esan daiteke 2015 urtean enpresak zor asko zituela. 2017an ere, enpresak sendotasun maila baxua zuten, baina, 2015 urtearekin alderatuz, zertxo bait handitu zela esan dezakegu. Izan ere, 2017an epe luzeko zorrak nabari gutxitu ziren, nahiz eta ratioak emandako emaitzetan ez zen hain argi ikusten.

Epe luzeko kaudimen maila (bermea) ere ez zuela oso ona aztertu genuen, hau da, inbertsioak baino zor gehiago zituela alegia eta beraz, ez zuela zorrei aurre egiteko nahikoa gaitasunik adierazten. Bai 2015ean zein 2017 urteetan, egoera antzekoa ematen bazen ere, 2017an zorrei aurre egiteko gaitasuna handiagoa zen, nahiz eta oraindik nahikoa ez izan.

2015an, enpresaren zorpetze maila oso altua zen, izan ere, zor zuten kopurua handia bait zen eta beraz, kanpo finantzazioarekiko menpekotasuna izango zuten. Hau da, enpresak zuten euro bakoitzeko 5,59 zentimo zor bait zituen. 2017ari erreparaturik, zorpetze maila altua izaten jarraitu bazuen ere, nabari egin zuten bera, kasu honetan, enpresak zuten euro bakoitzeko 2,82 zentimo zor zituelarik. Zorpetzearen murrizketa hau ondare garbian emandako gehikuntzaren ondorioetako bat izan zen, hau handitzearen eraginez, enpresaren egoera hobetoago bat lortu zelarik.

Hala ere, bi urteetan finantza autonomia eskasa izan zuten, enpresak zor zuten euro bakoitzeko 0,17 zentimo soilik bait zituen. Zor zuten euro hori ordaindu ezingo zuen, eta beraz, etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak izango zituelarik.

Kaudimena aztertuz, euro bat zor zuten epe laburrean eta hori ordaintzeko 2,10 euro zituen. 2015 urtean, hain zuzen ere, zor zuten euro bakoitzeko 2,10 euro zituen inbertituta, hortaz, 2015ean epe laburreko inbertsio nahikoak zituen zor horiek ordaintzeko. 2017an, nahiz eta gutxiago eduki inbertituta, zorrei aurre egiteko nahikoa zuten.

Eta azkeneko aldagaiari erreparaturik, bi urteetan diruzaintzari dagokionez, hobeto egin beharko zuten enpresak, ez bait zen erreferentzia interbaloetara iristen eta hori arriskutsua izan zitekeen

enpresarentzat. Hau da, epe laburreko zorrak ordaintzeko epe laburrerako zituzten baliabide nahikoak ez zituztelarik.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio

BAIT= Emaizta+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= 12.240+ 1.446- 5.998= 7.688

BAIT 2017= 169.780+ 514+ 1.238= 171.532

TAULA 13: Karakate enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun Ekonomikoa	2015	2017
ROI= BAIT/At	0,58%	10,91%
Marjina= BAIT/Salmenta	0,30%	6,45%
Errotazioa= Salmenta/At	1,93	1,69

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 0,58 m.u. berreskuratzen ziren. Horietatik 0,3 marjenetatik lortzen ziren (aldagai nagusia), baino enpresak aktiboa 1,93 aldiz saltzen zuenez urte batean, kopuru hori gehiago handiagotzen lagundu zuen, nahiz eta ez izan marjina bezain garrantzitsua.

Bilakaera

KARAKATE SA enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik irabazi oso txikiak izatetik 10,91ko irabaziak izatera igaro zen. Irabazi horren aldagai nagusia marjina izan zen bi urteetan, nabari egin baitu gora, nahiz eta errotazioa zertxobait murriztu zen. Hau da, enpresa honen errentagarritasun ekonomikoa nabari handitu zen, marjenak ere nabari egin bait zuen gora.

1.5. Batz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
$d1: \frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
$d2: \frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{484.789}{2.545.042} \times 360 = 69 \text{ egun}$	$\frac{653.629}{2.655.887} \times 360 = 89 \text{ egun}$
BHA	69 egun	89 egun
<i>Ordainketa epea</i>		
$d3: \frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	56 egun	50 egun
UEFB garbia	13 egun	39 egun

Oinarri urtea

BHA 69 egunetakoa izan zen, hau da, salgaiak erosi eta kobratu arte igarotzen diren egun kopurua adierazten du. Gainera, hornitzaileak 56 egunetara finantzatzen zutenez, enpresaren behar finantzarioak 16,72 egunekoak izan ziren.

Bilakaera

BHA 20 egunetan handitu zen, kobro epea luzatzearen ondorioz, bai eta salmenta epea zertxobait luzatu zelarik. Gainera, UEFB beharrak ere 26 egunetan handitu ziren, hornitzaileak emandako finantzaketa 6 egunetan murriztu zelarik. Kasu honetan, salmenta epeak eragin nabarmenagoa izan zuen urte batetik bestera, bere hazkundera nabarmena izan zelarik.

2)REPARACIONES AUTO-IRAETA SAL

1.1 Balantzea

TAULA 14: Reparaciones auto-iraeta enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	151.665	153.185	ONDARE GARBIA	160.926	174.111
Aktibo korrontea	313.739	428.960	PASIBOA	304.479	408.034
AKTIBO TOTALA	465.404	582.145	Pasibo ez korrontea	154.640	186.616
			Pasibo korrontea	149.839	221.418
			OG+PASIBOA	465.405	582.145

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

OG < 2/3 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{160.926}{300.506} = 0,535 < 0,66$$

$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{174.111}{300.506} = 0,579 < 0,66$$

Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2. Errotazio fondoa

$$EF \text{ 2015} = (Pek+OG) - Aek = (154.640+160.926) - 151.665 = 163.900$$

$$EF \text{ 2015} = Ak - Pk = 313.739 - 149.839 = 163.900$$

Aek:%32,58		OG+Pek:%67,80
	EF	
Ak:%67,41		Pk:%32,19

Ak:%26,31		OG+Pek:%61,96
	EF	
Ak:%73,68		Pk:%38,08

$$EF \text{ 2017} = (Pek+OG) - Aek = (186.616+174.111) - 153.185 = 207.542$$

$$EF \text{ 2017} = Ak - Pk = 428.960 - 221.418 = 207.542$$

2015 urtean, errotazio fondoa positiboa zen eta beraz, aktibo korrontearen zati batek baliabide iraunkorrekin finantzatzen zuen eta horrek marjin operatibo bat sortu zuen. Beraz, esan dezakegu epe laburrekoak epe luzekoari finantzatzen ziola. Bestetik, maniobra funtsa positiboa denez, finantzaketa egoera orekatu baten aurrean zeudela esan nahi du.

Bestalde, enpresak aurrera egin ahala 2017an ere errotazio fondoa positiboa izaten jarraitu zuen. Kasu honetan ere, aktibo korrontearen zati batek ondare garbia gehi pasibo ez korrontearen zati bat finantzatzen zuelarik. Beraz, enpresak ez zuela ordainketa etenduraren arriskurik esango dugu.

Ratioei dagokionez, epe luzekoak zein laburrekoak aztertuko ditugu.

1.3. Ratioak

TAULA 15: Reparaciones auto-iraeta enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	0,980761769	0,820856733
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	1,528525777	1,426707088
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	1,892043548	2,343527979
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	0,528529061	0,426707088
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	2,093840722	1,937331202
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,07	0,28

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Enpresaren datuekin analisi hau egin ondoren, enpresaren egoera argiago ikus dezakegu. Batetik, sendotasun maila baxua zuen enpresak, epe luzeko zor asko edukitzearen arriskua ekarri diezaiokelarik enpresari. Hortaz, 2015 zein 2017 urteetan enpresak zor asko zituen. Gainera, proportzioan sendotasunak aldaketa nabaria eduki ez bazuen ere 0,16eko diferentzia izanik, epe luzeko pasiboak 2017an altuagoak izan ziren.

Epe luzeko kaudimen maila egokia zuen orokorrean, nahiz eta 2017an zertxobait handitzea komeniko litzaiokeen. Hotaz, esan dezakegu bi kasuetan, inbertsio gehiago zituela zorrak baino, eta beraz, zorrei aurre egiteko nahikoa gaitasun zuela adierazten zuen.

2015ean enpresak zorpetze maila altua bazuen ere, 2017an maila hori altuagoa zen. Izan ere, zor zuen kopurua handia bait zen eta beraz, kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna izango zuen. Hau da, enpresak zuen euro bakoitzeko 1,89 zentimo zor bait zituen. Aldiz, 2017an zorpetze maila hau altuagoa zela esango dugu, zor zuen euro bakoitzeko 2,34zentimo zor zituelarik. Zorpetzearen gehikuntza hori, pasiboan emandako gehikuntzaren eragina izan zen, zorrak haunditu zirelarik.

Autonomiari jarraiki, bi urteetan finantza autonomia eskasa zuen, 2015 urtean enpresak zor zuen euro bakoitzeko 0,52 zentimo soilik bait zituen. Zor zuen euro hori ezingo zuelarik ordaindu eta beraz, etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak izango zituen.

Kaudimen ratio egokia zuen enpresak, bi urteetan gainera. Hau da, euro bat zuen epe laburrean eta hori ordaintzeko 2,09 zentimo zituen inbertituta, hortaz, zorrei aurre egiteko nahikoa gaitasun zeukan.

Eta azkenik, diruzaintzari dagokionez, hobetu egin beharko zuen enpresak. 2015ean bereziki egin beharko zion aurre egoera horri, enpresarentzat arriskutsua izan zitekelarik.

Laburbilduz, epe luzeko zor horiek nabari murriztu beharko ziren, epe luzeko inbertsio horiekiko arriskua ekar diezaiokelarik edota inbertsio horiek handitu zorrei nabari aurre eginez. Gainera, zor horiek diru

likidoz ordaindu beharko zituen eta enpresak zuen diruarekin horiek guztiak ordaintzeko iristen ez bazen, jabeak jarri beharko zuen bere diru kopurua hori. Bestalde, ratioengan pentsatuz enpresarentzat egokiena zorrak gutxitzea izango zen, egoera hobea bat lortu nahi izanez gero .

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio

BAIT= Emaizta+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= 136.342+ 17.197- 72.260= 81.279

BAIT 2017= 25.135+ 18.189+ 0 = 43.324

TAULA 16: Reparaciones auto-iraeta enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	17,46%	7,44%
Marjina= BAIT/Salmenta	7,28%	3,91%
Errotazioa= Salmenta/At	2,39	1,901

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 17,46 m,u, berreskuratzen ziren. Horietatik 7,28 m.u. marjenetatik lortzen ziren, baino enpresak aktiboa 2,39 aldiz saltzen zuenez urte batean, honek ere kopurua hori gehiago handiagotzen lagundu zuen, nahiz eta ez izan marjina bezain garrantzitsua.

Bilakaera

REPARACIONES AUTO-IRAETA SAL enpresak aktiboan inbertitutiko ehun moneta unitate bakoitzetik 17,46 irabaztetik 7,44ko irabaziak izatera igaro zen. Errentagarritasun ekonomikoa murriztearen arrazoia marjinak nabari murriztu zirelako izan zen, salmentak bi urteetan murriztu zirelarik.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
d1: $\frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
d2: $\frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{115.781}{1.116.384} \times 360 = 37 \text{ egun}$	$\frac{127.893}{1.107.106} \times 360 = 42 \text{ egun}$
BHA	37 egun	42 egun
<i>Ordainketa epea</i>		
d3: $\frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	21 egun	36 egun

UEFB garbia

16 egun

6 egun

Oinarri urtea

BHA 37 egunetakoa izan zen, hau da, salgaiak erosten diren unetik, saldu eta kobratu arte igarotzen den egun kopurua adierazten du. Gainera, hornitzaileari ordaintzeko epea 21 egunekoa zenez, enpresaren behar finantzarioa 16 egunetakoa izatea iritsi ziren.

Bilakaera

BHA 5 egunetan handitu zen, kobro epea ere 5 egunetan handituz. Aldiz, UEFB beharrak 10 egunetan murriztu ziren, hornitzaileak emandako ordainketa epea 15 egunetan handitu zelarik. Kasu honetan, enpresak behar gutxiago zuen, hornitzailei ordaintzeko epea luzeagoa izanik, eta batz besteko heltze aroa handiagoa zutelarik 2017 urtean.

3)RED DE SUMINISTROS TECNICOS SA

1.1 Balantzea

TAULA 17: Red de suministros tecnicos enpresako balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	3.609	1.239	ONDARE GARBIA	66.048	148.780
Aktibo korrontea	289.650	308.563	PASIBOA	227.211	161.022
AKTIBO TOTALA	293.259	309.802	Pasibo ez korrontea	-	-
			Pasibo korrontea	227.211	161.022
			OG+PASIBOA	293.259	309.802

Iturria: Sabi datu basetik hartutako datuak

OG < 2/3 KS

2015 URTEA: $OG/KS < \frac{2}{3}$ ————— $\frac{66.048}{120.202} = 0,549 < 0,66$



2017 URTEA: $OG/KS < \frac{2}{3}$ ————— $\frac{148.780}{120.202} = 1,23 > 0,66$

} Desorekatik irteera lortu

1.2 Errotazio fondoa

EF 2015= (Pek+OG)-Aek= (0+66.048)-3.609 = 62.439

EF 2015= Ak-Pk= 289.650-227.211= 62.439



EF 2017= (Pek+OG)-Aek= (0+148.780)-1.239= 147.541

EF 2017= Ak-Pk= 308.563-161.022= 147.541

Enpresak 2015 urtean, errotazio fondo positiboa izan zuen. Hau da, aktibo korrontearen zati batek baliabide iraunkorrak finantzatu zituen. Hain zuzen ere, epe laburrekoak epe luzekoak finantzatu eta beraz, marjin operatibo bat emanez. Bestetik, maniobra funtsa positiboa zenez, finantzaketa egoera orekatu baten aurrean zegoela esango genuke, ordainketa etendura bat saiestuz.

2017 urtean ere, 2015ean eman zen egoera berbera irudikatzen zen. Epe laburreko aktiboek balibide iraunkorrak finantzatzen zituztelarik.

1.3 Ratioak

TAULA 18: Red de suministros técnicos enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	-	-
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	1,290690151	1,923973122
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	3,440089026	1,082282565
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	0,290690151	0,923973122
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	1,274806237	1,916278521
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,017	0,23

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Hau dena aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu enpresa honek zenbait irtenbide bilatu behar dituela egoerari buelta eman ahal izateko.

Enpresak 2015 urtean, epe luzeko kaudimen maila txikia zuen, hau da, ez zituela behar bezain beste inbertsio eta beraz, zorrei aurre egiteko gaitasun juxtua zuela adierazten zuen. Aldiz, 2017an epe luzeko kaudimen egokia zuela ikus zitekeen, inbertsioak zorrak baino gehiago edukiz eta horiei aurre egiteko arazorik ez zutelarik.

Zorpetze mailari dagokionez, 2015 urtean zor asko zituen, izan ere, zor zuen kopurua handia bait zen eta beraz, kanpo finantziazioarekiko menpekotasuna izango zuen. Hau da, enpresak zuen euro bakoitzeko 3,44 zentimo zor zituen. 2017ari erreparaturaz, zorpetze maila altua izaten jarraitu bazuen ere, nabari egin zuen bera, kasu honetan, enpresak zuen euro bakoitzeko 1,08 zentimo zor zituztelarik. Murrizketa hau enpresak zorrak murriztu zituelako izan zen, enpresan egoera hobego bat lortuz.

Hala ere, bi urteetan finantza autonomia eskasa zuen. Esaterako, 2015 urtean enpresak zor zuen euro bakoitzeko 0,29 zentimo zituen, beraz, zor zuen euro hori ezingo zuen ordaindu, eta etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak izango zituen. 2017an ere egoera bera ematen zen, ezingo zuelarik zorrei aurre egin.

Kaudimen ratioa aztertuz, egoera nahiko egokiak zituztela aipatuko dugu, nahiz eta 2015ean larri zeuden. Izan ere, euro bat zor zuen epe laburrean eta hori ordaintzeko 1,27 zentimo zituen. Hala ere, zor hori ordaintzeko nahikoa zuen inbertituta. 2017an aldiz, egoera hobego batean aurkitzen zen, zorrei ordaintzeko zertxobait gehiago izanik.

Azkenik, argi dago diruzaintza hobetu egin beharko zuela enpresak, epe laburreko zorrak ordaintzeko ez bait zuen diru likido askorik.

Hau dena azaldu ondoren, enpresa zenbait gauza aldatzen hasi beharko zuen. Lehenik eta behin, zorrak gutxitu beharko zituen enpresak ahal zuen neurrian eta aldi berean, enpresaren baliabide propioak handitzen ahalegindu behar zuen zenbait aldaketa burutuz. Finantza autonomia ere, zorpetzearen egoera berean zegoen, honi aurre egiteko irtenbidea ondare garbia handitzea edo zorrak txikitzea izanik.

Azkenik, enpresa honen diruzaintza urtez urte hobetzen doan arren, oraindik ez zen nahikoa eta nahikoa ez zen bitartean gainontzeko zenbatekoa jabeak berak ordaindu beharko zuen.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio

BAIT= Emaizta+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= -231.062+ 5.398- 0= -225.664

BAIT 2017= 21.974+ 4.655+ 0 = 26.629

TAULA 19: Red de suministros tecnicos enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	-76,95%	8,59%
Marjina= BAIT/Salmenta	-36,68%	4,94%
Errotazioa= Salmenta/At	2,09	1,73

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta bakoitzagatik 76,95 m.u. galtzen ziren. Horietatik 36,68 m.u. marjenetatik galtzen zirelarik eta gainera, enpresak aktiboa 2,09 aldiz saltzen zuenez urte batean, honek ere kopuru hori gehiago murriztea zekarren, nahiz eta ez izan marjina bezain garrantzitsua.

Bilakaera

RED DE SUMINISTROS TECNICOS SA enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik galerak izatetik 8,59 m.u. irabaziak izatera igaro ziren. Irabazi horien aldagai nagusia marjina izan zen, bi urteetan nabari egin bait zuen gora, batez ere, BAIT negatiboa izatetik positibo izatera pasa bait zen 2015ean emaitza negatiboa lortu bait zuen enpresak. Aldiz 2017an, egoerari buelta eman eta irabaziak lortu zituztelarik. Hau da, enpresa horren errentagarritasun ekonomikoa nabari handitu zen.

1.5 Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
$d1: \frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
$d2: \frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{173.929}{615.135} \times 360 = 102 \text{ egun}$	$\frac{165.729}{538.971} \times 360 = 111 \text{ egun}$
BHA	102 egun	111 egun
<i>Ordainketa epea</i>		
$d3: \frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	57 egun	35 egun
UEFB garbia	45 egun	76 egun

Oinarri urtea

BHA 102 egunetakoa izan zen, hau da, salgaiak erosi, saldu eta kobratu arte igarotzen den egun kopurua adierazten du. Izan ere, hornitzaileak 57 egunetara finantzatzen zirenez, enpresaren behar finantzarioak 45 egunekoak izatea ekarri zuen.

Bilakaera

BHA 9 egunetan handitu zen, kobro epea hazi egin zelarik 2015 urtetik 2017 urteera. Gainera, UEFB beharrak ere hazi egin ziren 31 egunetan hain zuzen, izan ere, hornitzaileak emandako ordainketa epeak ere nabarmen murrizu zirelarik, hau da, 22 egun gutxiago izanik hornitzaileei ordiantzeko. Kasu honetan, ordainketa epea izanik aldagai nagusia.

4)AIZKOLENE S.L.

1.1 Balantzea

TAULA 20: Aizkolene enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	239.259	239.259	ONDARE GARBIA	890.550	888.137
Aktibo korrontea	751.517	750.455	PASIBOA	100.226	101.577
AKTIBO TOTALA	990.776	989.714	Pasibo ez korrontea	-	-
			Pasibo korrontea	100.226	101.577
			OG+PASIBOA	990.776	989.714

Iturria: Sabi datu basetik hartutako datuak



OG < 2/3 KS

$$\begin{array}{l}
 \text{2015 URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{890.550}{1.630.550} = 0,546 < 0,66 \\
 \text{2017 URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{888.137}{1.630.550} = 0,54 < 0,66
 \end{array}
 \left. \vphantom{\begin{array}{l} \text{2015 URTEA} \\ \text{2017 URTEA} \end{array}} \right\} \text{Ez du lortu desorekatik irtetea}$$

1.2 Errotazio fondoa

$$EF \text{ 2015} = (Pek+OG) - Aek = (0+890.550) - 239.259 = 651.291$$

$$EF \text{ 2015} = Ak - Pk = 751.517 - 100.226 = 651.291$$



$$EF \text{ 2017} = (Pek+OG) - Aek = (0+888.137) - 239.259 = 648.878$$

$$EF \text{ 2017} = Ak - Pk = 750.455 - 101.577 = 648.878$$

Kasu honetan ere, enpresak bi urteetan errotazio fondo positiboa mantendu zuen. Hau da, aktibo korrotearen zati batek, baliabide iraunkorrak finantzatzen zituen eta horrek marjin operatibo bat ematen zuen, hau da, epe laburrekoak epe luzeokari. Gainera, maniobra funtsa edo errotazio fondoa positiboa izanik, finantzaketa egoera orekatu baten aurrean zegoela esan dezakegu eta hortaz, ez zen etendurarik ematen.

1.3 Ratioak

TAULA 21: Aizkolene enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	-	-
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	9,885418953	9,743485238
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	0,112543934	0,114370868
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	8,885418953	8,743485238
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	7,498224014	7,3880406
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,01	0

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Enpresako ratioen azterketa hau egin ondoren, hainbat gauza aipatu ditzazkegu.

Batetik, epe luzeko kaudimen maila altuegia zuela, bai 2015 zein 2017 urteetan eta hortaz, zorrei aurre egiteko gaitasun paregabea izango zuen. Zor horiek inungo arazorik gabe ordaindu ahal izango zituelarik.

Bi urteekin jarraiki, zorpetze maila egokia zuten, hau da, enpresak bere baliabide propioekin aurre egin ziezaiekeen zor horiei, kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna izan gabe. Hau da, enpresak zuen euro bakoitzeko 0,11 zentimo zor bait zituen.

Gainera, enpresaren baldintza egokiekin jarraituz, finantza autonomia ona zuela ere ikus dezakegu bi urteetan. Esaterako, 2015ean zor zuen euro bakoitzeko 8,88 zentimo bait zituen inbertituta eta beraz, euro hori inungo arazorik gabe ordaindu ahal izango zuen. Beraz, ez zuen arazorik izango etorkizunean inbertsioak egiteko.

Kaudimen ratio altuak zituen, izan ere, euro bat zor zuen epe laburrean eta hori ordaintzeko 7 zentimo inguru zituen bi urteetan, beraz, zor hori ordaintzeko nahikoa zuen inbertituta.

Azkenik, diruzaintzari dagokionez, enpresak irtenbideren bat bilatu behar zuen, urte batean zein bestean diru erabilgarriak ez bait zuen.

Hau dena azterturik, enpresak bermearen ratoraren zenbatekoa oso altua zuen, inbertsioak zorrak baino gehiago edukiz eta alde horretatik enpresarentzat positiboa izan arren, komeniko litzaioke inbertsio horiek zertxobait murriztea arriskuak izan ez zitzaizkien. Diruzaintzari jarraiki, enpresak arazoak izan zitzaizkien diru likidoa ez edukitzeagatik eta horri irtenbide bat eman behar zitzaion. Hala ere, finantza autonomia altua zuenez, zorrei horrekin egingo zien aurre.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio

BAIT= Emaidza+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= -218.924+ 12.760+ 0= -206.164

BAIT 2017= -1.328+ 63+ 0 = -1.265

TAULA 22: Aizkolene enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	-20,80%	-0,12%
Marjina= BAIT/Salmenta	-	-
Errotazioa= Salmenta/At	-	-

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzagatik 20,8 m.u. galtzen ziren. Hala ere, salmenta kopuruaren daturik ez genuenez ezingo genuen jakin horren arrazoi edo aldagai nagusia zein zen.

Bilakaera

AIZKOLENE S.L. enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 20,8 m.u.ko galerak izatetik 0,12 m.u. ko galerak izatera pasa zen. Beraz, enpresa honen errentagarritasun ekonomikoa oraindik txarra bazen ere, nabari egin zuen gora.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
$d1: \frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
$d2: \frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{55.139}{-} \times 360 = - \text{ egun}$	$\frac{55.139}{-} \times 360 = - \text{ egun}$
BHA	-	-
<i>Ordainketa epea</i>		
$d3: \frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	-	-
UEFB garbia	-	-

Enpresa honetan, ezingo dugu jakin bataz besteko heltze aroa zein beharrak zenbatekoak ziren. Izan ere, enpresak zenbait datu ez argitaratzearen ondorioz, salmenta epea, kobro epea eta ordainketa epea zenbatekoak ziren ezin bait dugu jakin. Hortaz, ezingo dugu analisia interpretatu.

5) INROBUL S.L.

1.1 Balantzea

TAULA 23: Inrobul enpresako balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	341.913	341.913	ONDARE GARBIA	548.552	546.835
Aktibo korrontea	206.650	205.220	PASIBOA	11	298
AKTIBO TOTALA	548.563	547.133	Pasibo ez korrontea	-	-
			Pasibo korrontea	11	298
			OG+PASIBOA	548.563	547.133

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

OG < 2/3 KS



$$\begin{array}{l}
 \text{2015 URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{548.552}{1.030.000} = 0,532 < 0,66 \\
 \text{2017 URTEA: } OG/KS < \frac{2}{3} \quad \frac{546.835}{1.030.000} = 0,53 < 0,66
 \end{array}$$

} Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2 Errotazio fondoa

$$EF\ 2015 = (Pek + OG) - Aek = (0 + 548.552) - 341.913 = 206.639$$

$$EF\ 2015 = Ak - Pk = 206.650 - 11 = 206.639$$



$$EF\ 2017 = (Pek + OG) - Aek = (0 + 546.835) - 341.913 = 204.922$$

$$EF\ 2017 = Ak - Pk = 205.220 - 298 = 204.922$$

Enpresak bi urteetan errotazio fondo egokia izan du. Izan ere, bi urteetan aktibo korrontearen zati batek baliabide iraunkorrak finantzatu ditu, hau da, epe laburrekoak epe luzeakoak finantzatuz eta beraz, errotazio fondo positiboa izan zuela deritzogu. Hau positiboa izanik, finantzaketa egoera orekatu baten aurrean aurkitzen zen enpresa eta hortaz, ordainketa etendurarik ez zuen eduki.

1.3 Ratioak

TAULA 24: Inrobul enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	-	-
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	49869,36364	1836,016779
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	2,00528E-05	0,000544954

Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	49868,36364	1835,016779
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	18786,36364	688,6577181
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	773	680,45

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Enpresa honi erreparatuz, ikus dezakegu epe luzeko kaudimen maila oso altua zuela, batez ere, 2015 urtean zorrei aurre egiteko gaitasuna soberan izanik. Aipatzekoa da ere, enpresa honek batez ere 2015 urtean ez zuela zorzarrik.

Bestalde, bi urteetan zorpetze maila oso baxua izan zuen, lehen esan bezela, enpresa honek ez bait zuen ia zorrik ordaintzeko eta beraz, zorrei aurre egiteko gaitasun nahikoa zuela adierazten zuen.

Beste ratioetan gertatzen zen moduan, zorrik ez zuenez enpresak edota kopuru txikia izanik, autonomia ona zuela esan genezakeen. Berak zor zituen kopuruak ordaintzeko nahikoa inbertituta zuelaerik. Hori dela eta, etorkizunean inbertsioak egin ahal izango zituen.

Diruzaintzaren ratioan ere, eragin nabaria izango zuen zor gutxi edukitzeak, horrek diru likido ugari edukitzea eragiten bait zion enpresari.

Laburbilduz, ikus dezakegu enpresa batek zor kopuru txikia izanik enpresari zenbait aspektutan erraztu egiten ziola inbertsioak egin eta aurrera jarraitu ahal izateko. Aztertutako enpresa honen ratiotan behar bada datu izugarri altuak ematen zituen eta hori guztiz ez zen egokia zenbaitetan enpresari arriskuan jarri ziezaiokelako, baina, enpresak zorrik ezean enpresak autonomia, diruzaintza, etab. zituela adierazten zuen.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio

BAIT= Emaitza+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= -304.102+ 305.581+ 0= 1.479

BAIT 2017= -978+ 176+ 0 = -802

TAULA 25: Inrobul enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	0,26%	-0,14%
Marjina= BAIT/Salmenta	-	-
Errotazioa= Salmenta/At	-	-

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 0,26 m.u. berreskuratzen ziren. Hala ere, salmenta kopuruaren daturik ez dugunez ezingo dugu jakin horren arrazoi edo aldagai nagusia zein zen.

Bilakaera

INROBUL S.L. enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik irabazi txikiak izatetik 0,14 m.u. ko galerak izatera igaro ziren. Beraz, enpresa honen errentagarritasun ekonomikoak okerrera joan zen 2017an galerak izanik.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
d1: $\frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
d2: $\frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{3.147}{-} \times 360 = - \text{egun}$	$\frac{2.445}{-} \times 360 = - \text{egun}$
<hr/>		
BHA	-	-
<i>Ordainketa epea</i>		
d3: $\frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	-	-
<hr/>		
UEFB garbia	-	-

Enpresa honetan, ezingo dugu jakin bataz besteko heltze aroa zein beharrak zenbatekoak ziren. Izan ere, enpresak zenbait datu ez argitaratzearen ondorioz, salmenta epea, kobro epea eta ordainketa epea zenbatekoak ziren ezin bait dugu jakin. Hortaz, ezingo dugu analisia interpretatu.

Aurreko 5 enpresa horiek aztertu ondoren, oarain egoera larriagoan dauden beste 5 aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, *Ondare garbia < 1/2 kapital soziala* baldintza dutenak.

- *Ondare garbiaren desoreka duten enpresak OG < 1/2 kasuan*

6) LARRIALDIAK ANBULANTZIAK S.L.

1.1 Balantzea

TAULA 26: Larrialdiak anbulantziak enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	4.517.216	5.246.369	ONDARE GARBIA	-321.099	-287.130
Aktibo korrontea	1.385.807	2.230.524	PASIBOA	6.224.123	7.764.023
AKTIBO TOTALA	5.903.023	7.476.893	Pasibo ez korrontea	3.577.954	3.867.226
			Pasibo korrontea	2.646.169	3.896.797
			OG+PASIBOA	5.903.024	7.476.893

Iturria: Sabi datu basetik berreskuratutako datuak

OG < 1/2 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-321.099}{323.115} = -0,99 < 0,5$$


$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-287.130}{13.700} = -20,95 < 0,5$$

Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2 Errotazio fondoa

$$EF\ 2015 = (Pek+OG) - Aek = (3.577.954 - 321.099) - 4.517.216 = -1.260.361$$

$$EF\ 2015 = Ak - Pk = 1.385.807 - 2.646.169 = -1.260.362$$



Kasu honetan, 2015 urtea zein 2017 urtean, errotazio fondo negatiboa lortu zuen enpresak. Hau da, finantzaketa desorekatu baten aurrean aurkitzen zen enpresa eta finantzaketa desorekatu bat zegoenean ordainketa etendura bat ere ematen zen. Esaterako, pasibo korrontearen zati batek finantzatzeko aktibo ez korrontearen zati bat.

Ez zen egoera egoki bat enpresarentzat, hala ere, ondoren enpresaren ratiok aztertuko ditugu egoera haratago aztertuz.

1.3 Ratioak

TAULA 27: Larrialdiak anbulantziak enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	1,262513716	1,356623326
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	0,948410403	0,963017884
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	-19,38381309	-27,04009682
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	-0,051589437	-0,036982116
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	0,523703135	0,572399332
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,082	0,01

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Enpresaren ratioei erreparatuz, ikus dezakegu bere egoera ez zela oso ona. Hasiera batean ratio guztiak egoera desegokian zituen eta hori arriskutsua izan zitekeen.

Sendotasun maila egokia bazuen ere, enpresaren bermeari dagokionez ez zuen oso ona. Hau da, inbertsioak baino zor gehiago zituen enpresak eta beraz, zorrei aurre egiteko gaitasunik ez zuen izango. Bi urteetan egoera antzekoa ematen bazan ere, 2017an zorrak zertxobait murriztu ziren bai eta inbertsioak ere. Enpresaren egoera hobetu nahi bazuten, zorrak gutxitzen ahalegindu beharko ziren, zituen inbertsioekin aurre egin ahal izateko edota bestela, nola hala inbertsio horiek handitu egin beharko zituzten.

Bestalde, 2015 urtean zorpetze maila altua zuen, izan ere, zor zuen kopurua handia bait zen, eta beraz, kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna izango zuen. Hau da, enpresak zuen euro bakoitzeko 27,04 euro zor bait zituen. 2017ari erreparatuz, zorpete maila altua izaten jarraitu bazuen ere, zertxobait bera egin zuen, kasu honetan, enpresak zuen euro bakoitzeko 19,38 euro zor zituelarik. Zorpetze maila altua

izatearen arrazoia, zor ugari izateaz gain enpresak bere balabide propioak ez izatearen ondorioa izan zen.

Zorpetzearekin lotura duen beste ratioa finantza autonomia da. Ratio honetan ere, ikus genezaken enpresak autonomia maila eskasa zuela, 2015 urtean enpresak zor zuen euro bakoitzeko 0,036 zentimo soilik bait zituen. Honek etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak ekar diezaioken enpresari, zor horiek ezingo bait zituen ordaindu. 2017an ere egoera berbera ematen zen, zor zuen euro bakoitzeko 0,051 zentimo zituelarik eta zorrei aurre egiteko gaitasunik ez zuelarik.

Epe laburreko kaudimen ratioa aztertuz, epe laburreko inbertsioak ez ziren nahikoak izan 2015 urtean, epe laburrean zituen zor guztiak ordaintzeko zor zuen euro bakoitzeko 0,52 zentimo bait zituen inbertituta. Urteak aurrera egin ahala, 2017an egoera desegokian jarraitzen zuen enpresak, ez bait zen zorrei aurre egiteko gai.

Azkenik, enpresak diruzaintzan ere hobetu egin beharko zuen bai 2015 zein 2017an, ez bait zuen diru likido nahikorik epe laburreko zorrei aurre egiteko, eta beraz, arazoak sortuko zizkion enpresari.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio

BAIT= Emaizta+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= -835.156+ 133.444+ 0= -681.712

BAIT 2017= -301.318+ 172.557+ 0 = -128.761

TAULA 28: Larrialdiak anbulantziak enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	-11,54%	-1,72%
Marjina= BAIT/Salmenta	-10,19%	-1,15%
Errotazioa= Salmenta/At	1,13	1,49

Iturria: Sabi datu basetik berreskuratutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 11,54 m.u.ko galerak lortzen ziren. Horietatik, 10,19 m.u. marjenetatik lortzen ziren, izan ere, ekitaldiko emaitza negatiboa zuelarik eta hortaz, egoera horrek errentagarritasun ekonomikoari kaltetu zion. Gainera, enpresak aktiboa 1,13 aldiz saltzen zuenez urte batean, honek ere, ROI gutxiagotzen lagundu zuen, nahiz eta ez izan marjina bezain garrantzitsua.

Bilakaera

LARRIALDIK ANBULANTZIAK S.A. enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 11,54 m.u. ko galera izatetik 1,72 m.u.ko galerak izatera igaro zen. Aldakuntza horren arrazoi edo aldagai nagusia marjina izan zen, hau ere izugarri hazi zuelarik. Bestalde, nahiz eta 2017an ekitaldiko emaitza negatiboa izan, 2015 urtean baino txikiagoa izan zen galera hori eta gainera, salmentak ere haditu zirenez galera hori nabari murrizten lagundu zuen. Hala ere, 2017an errentagarritasun ekonomikoa negatiboa izan zen.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
$d1: \frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
$d2: \frac{\text{Bezeraok } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{1.082.370}{6.685.977} \times 360 = 58 \text{ egun}$	$\frac{1.995.294}{11.146.464} \times 360 = 62 \text{ egun}$
BHA	58 egun	62 egun
<i>Ordainketa epea</i>		
$d3: \frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	5 egun	18 egun
UEFB garbia	53 egun	44 egun

Oinarri urtea

BHA 58 egunetakoa izan zen, hau da, salgaiak erosi, saldu eta kobratu arte igarotzen ziren egun kopurua adierazten du. Hornitzaileak 5 egunetara finantzatzen zirelako, eta horrek enpresaren behar finantzarioak 53 egunekoak izatea ekarri zuen.

Bilakaera

BHA 4 egunetan handitu zen, kobro epea hazi egin zelarik 2015 urtetik 2017 urtera. Aldiz, UEFB beharrak murriztu egin ziren 9 egunetan hain zuzen, hornitzaileekin adostutako ordainketa epeak nabarmen handitu direlarik, hau da, 13 egun gehiago izanik hornitzaileei ordaintzeko. Kasu honetan, ordainketa epea izan da aldagai nagusia, eragin nabarmena izanik.

7)OKIN-TALDE S.A.

1.1 Balantzea

TAULA 29: Okin talde enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	110.098	116.953	ONDARE GARBIA	-2.825.465	-2.824.186
Aktibo korrontea	52.113	53.488	PASIBOA	2.987.676	2.994.626
AKTIBO TOTALA	162.211	170.441	Pasibo ez korrontea	-	-
			Pasibo korrontea	2.987.676	2.994.626
			OG+PASIBOA	162.211	170.440

Iturria: Sabi datu basetik hartutako datuak

OG < 1/2 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-2.825.465}{1.497.692} = -1,886 < 0,5$$

$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-2.824.186}{1.497.692} = -1.885 < 0,5$$

Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2 Errotazio fondoa

$$EF \ 2015 = (Pek + OG) - Aek = (0 - 2.825.465) - 110.098 = -2.935.563$$

$$EF \ 2015 = Ak - Pk = 52.113 - 2.987.676 = -2.935.563$$

Aek: %67,87

Ak: %32,12

Aek: %68,61

$$EF \ 2017 = (Pek + OG) - Aek = (0 - 2.824.186) - 116.953 = -2.941.139$$

Ak: %31,38

$$EF \ 2017 = Ak - Pk = 53.488 - 2.994.626 = -2.941.139$$

Enpresa honetan, aurrekoan gertatu den moduan errotazio fondo negatiboa izan zuten bi urteetan. Hau da, pasibo korrontearen zati batek aktibo ez korrontearen zati bat finantzatzen zuelarik. Egoera horrek, enpresan finantzaketa desoreka bat sortu zuen, ordainketa etendura bat emanaz enpresan.

1.3 Ratioak

TAULA 30: Okin talde enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	-	-
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	0,05429337	0,056915622
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	-1,057410373	-1,060350133
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	-0,94570663	-0,943084712
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	0,017442654	0,017861329
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,00028	0,00013

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Hau aztertu ondoren, jabetu gara zein egoera larritan zegoen. Izan ere, hasiera batean ratio gehienak egoera desegokian izan zituen enpresa arriskuan jarritz. Batetik, bermeari dagokionez 2 urteetan epe luzeko kaudimen maila txikia edo bajua izan zuten, hau da, enpresak ez zituen behar bezain beste inbertsio, zituen zorrei aurre egiteko, eta beraz, ez zuen zorrei aurre egiteko gaitasunik.

Bestetik, zorpetze maila altua zuen enpresak. 2015ean, zor zuen kopurua handia zen eta beraz, kanpo finantziazioarekiko menpekotasuna zuen. Enpresak zor zuen euro bakoitzeko 1,06 zentimo zor zituen. 2017ari erreparatuz, urte honetan ere zorpetze maila altuak jarraitu bazuen ere, zertxobait murriztu edo

txikitu zen, enpresak zor zuen euro bakoitzeko 1,05 zentimo zor zituelarik. Zorpetze maila izatearen arrazoia zor ugari izateaz gain, enpresak berebaliabide propioak ez izatearen ondorioa zen.

Zorpetzea ratioarekin lotuta dagoen beste ratioaren inguruan, finantza autonomia eskasa izaten jarraitu zuen. Esaterako, 2015 urtean, enpresak zor zuen euro bakoitzeko 0,94 zentimo zituen, beraz, zor zuen euro hori ezingo zuen ordaindu eta etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak izango zituen.

Zorrek ordaintzeko arazoak zirela eta, kaudimerari erreparatuz ere, ikus dezakegu enpresak epe laburrean ere arazoak zituela zorrei aurre egiteko. Enpresak zituen epe laburreko inbertsioak ez bait ziren nahikoak zituzten zorrei aurre egiteko.

Azkenik, enpresan dagoen diru likidoaren inguruan, enpresak honetan ere hobetu egin beharko du, ez bait zuen diru likido nahikorik diru erabilgarri horiekin zorrek ordaindu ahal izateko. Beraz, nahiko diru likido ez badu, kasu horietan jabeak berak jarri edo ordaindu beharko luke falta zen zenbatekoa.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= $BAIT / Aktibo Totala = Marjina \times Errotazio$

$BAIT = Emaizta + Gastu finantzarioa \pm MGZ$

$BAIT\ 2015 = 2.697 + 265 + 0 = 2.962$

$BAIT\ 2017 = -2.148 + 198 + 0 = -1.950$

TAULA 31: Okin talde enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	1,82%	-1,14%
Marjina= BAIT/Salmenta	-	-
Errotazioa= Salmenta/At	-	-

Iturria: Sabi datu basetik eskuratutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 1,82 m.u. berreskuratzen ziren. Hala ere, salmenta kopuruaren daturik ez genuenez ezagutzen ezingo dugu jakin zein zen berreskuratzearen arrazoia.

Bilakaera

OKIN-TALDE S.A. enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 1,82 m.u. irabaztetik 1,14 m.u. galtzera igaro zen. Hala ere, bilakaera horren arrazoia ezin dugu sakonago aztertu salmenten zenbatekoa ez baitugu ezagutzen. Hala ere, ikus daiteke errentagarritasun ekonomikoa ez zela bat ere ona eta enpresa 2017an ez zela errentagarria.

1.5 Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
d1: $\frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
d2: $\frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{77}{-} \times 360 = - \text{ egun}$	$\frac{174}{-} \times 360 = - \text{ egun}$
<hr/>		
BHA	-	-
<i>Ordainketa epea</i>		
d3: $\frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	-	-
<hr/>		
UEFB garbia	-	-

Enpresa honetan, ezingo dugu jakin bataz besteko heltze aroa zein beharrak zenbatekoak ziren. Izan ere, enpresak zenbait datu ez argitaratzearen ondorioz, salmenta epea, kobro epea eta ordainketa epea zenbatekoak ziren ezin bait dugu jakin. Hortaz, ezingo dugu analisia interpretatu.

8)ZINEALDIA S.L.

1.1 Balantzea

TAULA 32: Zinealdia enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	117.170	-	ONDARE GARBIA	-307.994	-642.236
Aktibo korrontea	8.525.705	10.067.569	PASIBOA	8.950.869	10.709.805
AKTIBO TOTALA	8.642.875	10.067.569	Pasibo ez korrontea	8.326.000	10.021.914
			Pasibo korrontea	624.869	687.891
			OG+PASIBOA	8.642.875	10.067.569

Iturria: Sabi datu basetik hartutako datuak

OG < 1/2 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-307.994}{250.000} = -1,23 < 0,5$$


$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-642.236}{260.000} = -2,27 < 0,5$$

Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2 Errotazio fondoa

$$EF\ 2015 = (Pek+OG) - Aek = (8.326.000 - 307.994) - 117.170 = 7.900.836$$

$$EF\ 2015 = Ak - Pk = 8.525.705 - 624.869 = 7.900.836$$



$$EF\ 2017 = (Pek+OG) - Aek = (10.021.914 - 642.236) - 0 = 9.379.678$$

$$EF\ 2017 = Ak - Pk = 10.067.569 - 687.891 = 9.379.678$$

Enpresa honen errotazio fondoaren inguruan, esan bi urteetan positiboa izan zela. 2015 urtean, aktibo korrontearen zati batek baliabide iraunkorrek finantzatzeko zituela, horrela, finantzaketa egoera orekatu bat sortuz, eta hortaz ordainketa etendurak saiestuz.

Gainera, 2017an egoera berezi bat eman zen, non epe luzeko inbertsiorik ez zuen eta hortaz, baliabide iraunkorren zati bat bere osotasunean aktibo korrontek edota epe laburreko inbertsioek finantzatzeko zuten, egoera orekatu bat emanaz.

1.3 Ratioak

TAULA 33: Zinealdia enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	0,014072784	-
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	0,965590604	0,940032895
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	-29,06182913	-16,6758092
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	-0,034409396	-0,059967105
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	13,64398778	14,63541317
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,036	1,08

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Hau dena aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu enpresaren egoera ez zela ona. Hasiera batean, ratio guztiak egoera desagokian zituen eta hori arriskutsua izan zitekeen.

Esaterako, sendotasun maila baxua zuen, horrek epe luzeko zor asko edukitzearen arriskua dakar. 2015 zein 2017 urtean, enpresak zor asko zituen eta beraz, enpresak dituen epe luzeko inbertsioekin ez da gai izango enpresaren epe luzeko zorrei aurre egiteko. Gainera, 2017an egoera oso larri batean egon zitekeen enpresa, epe luzeko inbertsiorik ez bait zuen.

Gainera, epe luzeko kaudimen maila baxua zuen bi urteetan. Hau da, enpresak zorrei aurre egiteko behar zituen inbertsio nahikoak ez zituen lortu eta beraz, zorrei aurre egiteko ez zuen gaitasunik.

Zorrei dagokienez, enpresa erabat zorpetua zegoen, zor kopuru handiak zituen eta kanpo finantzazioarekiko menpekotasuna izango zuen. Hau da, 2015 urtean, enpresak zuen euro bakoitzeko 29,06 zentimo zor zituen. Bestalde, 2017ari erreparatu, zorpetze maila gutxiagotu egin zen, kasu honetan, enpresak zuen euro bakoitzeko 16,67 zentimo zor zituen eta beraz, argi zegoen enpresa egoera

arriskutsu batetik igarotzen ari zela. Zorpetze maila izatearen arrazoia, zor ugari izateaz gain enpresak bere baliabide propioak ez izatearen ondorioa da.

Finantza autonomia dela eta enpresak bi urteetan eskasa izan zuen. Esaterako, 2015 urtean enpresak zor zuen euro bakoitzeko 0,0034 zentimo zituen, zorrei ezin zielarik aurre egin eta aldi berean, etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak izango zituelarik. 2017an, egoera bera ematen zen enpresan eta beraz, ez zuen zorrei aurre egiteko gaitasunik lortu.

Aldiz, kaudimen ratio altuak zituen enpresak. Kasu honetan, epe laburrean zorrei aurre egiteko gai zen enpresa. Euro bat zor zuen epe laburrean eta hori ordaintzeko 13,64 euro zituen 2015ean, zenbateko nahikoa izanik inbertituta zorrei aurre egiteko. 2017an gainera 2015 urtean baino gehiago zegoen inbertituta, eta beraz, zorrei aurre egiteko gaitasuna handiagoa lortu zuen 2017an.

Azkenik, enpresak zuen diru likidoa nahiko eskasa zen eta enpresak horri aurre egiten saiatu behar zuen. Izan ere, ez bait zuen diru erabilgarri nahikorik zorrei aurre egiteko eta beraz, arazoak edukitzeko arriskua zuten. Epe laburreko zorrak ordaintzeko epe laburreko baliabide nahikoak ez zituela, alegia. Aldiz, 2017an diruzaintza egokia lortu zuen enpresak egoera eskasari aurre eginez eta diru likido nahikoa lortuz epe laburreko zorrak ordaintzeko.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

$$\text{Errentagarritasun ekonomikoa} = \text{BAIT} / \text{Aktibo Totala} = \text{Marjina} \times \text{Errotazio}$$

$$\text{BAIT} = \text{Emaizta} + \text{Gastu finantzarioa} \pm \text{MGZ}$$

$$\text{BAIT 2015} = -356.005 + 389.357 - 112.422 = -79.070$$

$$\text{BAIT 2017} = -176.298 + 231.970 - 55.673 = 0$$

TAULA 34: Zinealdia enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	-0,01%	0,00%
Marjina= BAIT/Salmenta	-	-
Errotazioa= Salmenta/At	-	-

Iturria: Sabi datu basetik eskuratutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzagatik 0,01 m.u. galtzen ziren. Hala ere, salmenta kopuruaren daturik ez dugunez ezagutzen ezingo dugu jakin zein zen galera horien arrazoia.

Bilakaera

ZINEALDIA S.L. enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 0,01 m.u. galtzetik ez irabazi ez galtzera igaro zen 2017an. Hala ere, bilakaera horren arrazoia ezingo dugu sakonago aztertu salmenten zenbatekoa ez baitugu ezagutzen. Hala ere, ikus dezakegu enpresa honek ez zuela errentagarritasun ekonomikorik.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
d1: $\frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
d2: $\frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{20.257}{-} \times 360 = - \text{egun}$	$\frac{11.568}{-} \times 360 = - \text{egun}$
<hr/>		
BHA	-	-
<i>Ordainketa epea</i>		
d3: $\frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	-	-
<hr/>		
UEFB garbia	-	-

Enpresa honetan, ezingo dugu jakin bataz besteko heltze aroa zein beharrak zenbatekoak ziren. Izan ere, enpresak zenbait datu ez argitaratzearen ondorioz, salmenta epea, kobro epea eta ordainketa epea zenbatekoak ziren ezin bait dugu jakin. Hortaz, ezingo dugu analisia interpretatu.

9) IAMMEK S.L.

1.1 Balantzea

TAULA 35: Iammek enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	101.818	29	ONDARE GARBIA	-318.253	-137.752
Aktibo korrontea	114.236	20	PASIBOA	534.307	137.801
AKTIBO TOTALA	216.054	49	Pasibo ez korrontea	-	-
			Pasibo korrontea	534.307	137.801
			OG+PASIBOA	216.054	49

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datua

OG < 1/2 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-318.253}{120.202} = -2,64 < 0,5$$



$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-137.752}{120.202} = -1,14 < 0,5$$

Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2 Errotazio fondoa

$$EF\ 2015 = (Pek+OG) - Aek = (0-318.253) - 101.818 = -420.071$$

$$EF\ 2015 = Ak - Pk = 114.236 - 534.307 = -420.071$$



$$EF\ 2017 = (Pek+OG) - Aek = (0-137.752) - 29 = -137.781$$

$$EF\ 2017 = Ak - Pk = 20 - 137.801 = -137.781$$

Bi urteetan, hau da, bai 2015ean zein 2017an errotazio fondo negatiboa lortu zuen enpresak, izan ere, pasibo korrontearen zati batek, aktibo ez korrontearen zati bat finantzatzeko bait zuten. Egoera hau emanik, enpresa finantzaketa desorekatu egoeran aurkitzen zen eta beraz, ordainketa etendura bat ematen zen enpresan.

Hala eta guztiz ere, enpresaren egoera sakonago aztertu ahal izateko, epe luzeko zein laburreko ratioak aterako ditugu.

1.3 Ratioak

TAULA 36: Iamnek enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	-	-
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	0,404363035	0,000355585
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	-1,678874983	-1,000355712
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	-0,595636965	-0,999644415
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	0,213802177	0,000145137
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,00117	0,000145

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Enpresaren inguruko azterketa txiki bat egin ondoren, egoera honetan zeuden gainontzeko enpresen moduan enpresa honen egoera ere ez zen oso ona. Izan ere, ratio guztiak egoera desegokian zituen enpresaren egoera agerian ipiniz.

Bermeari dagokionez, epe luzeko kaudimen maila oso baxua zuen, batez ere, 2017 urtean. Hau da, enpresak zorrei aurre egiteko behar zituen inbertsio nahikoak ez zituen lortu eta beraz, zorrei aurre egiteko ez zuen gaitasunik. Gainera, 2017an oraindik eta gaitasun txikiagoa zuela ikusi dugu, inbertsio oso txikiak lortu bait zituen urte horretan.

Bestalde, enpresaren zorren zenbatekoa ikusiz, enpresa zorpetua zegoela ikusi dezakegu. Izan ere, zor zuen kopurua handia zen eta beraz, kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna izango zuen. Hau da, enpresak zuen euro bakoitzeko 1,67 zentimo zor bait zituen 2015 urtean. 2017ari erreparatu, egoera antzekoa zuela ikusten zen, nahiz eta zorpetze maila pixka bat murrizten zen, enpresak zuen euro bakoitzeko 1 zentimo zor zituelarik eta beraz, ez zuen irabazirik ateratzen zorrei aurre egiteko juxtuko

zenbatekoa izanik. Zorpetze maila desegokia edukitzearen arrazoia zor ugari izateaz gain, enpresak bere baliabide propioak ez izatearen ondorioa izanik.

Zor kopuru horiek kontuan hartuz, eta gainera bere baliabide propio murriztak ikusiz argi dago enpresa honek finantza autonomia eskasa zuela bi urteetan. Gainera, horrela izanik etorkizunean enpresak inbertsioak egiteko oztopoak izan dezazke.

Epe laburreko kaudimen ratioa ere txikia du enpresak, epe laburreko inbertsioekin epe laburreko zorrei aurre egiteko gai ez zelarik. Gainera, 2017 urtean egoera hobeto beharrian, gaitasun hori txikiagotu egin zen.

Azkenik, diru likidoari erreparatuz ere, enpresaren egoera hauetan ez zuen diru erabilgarri askorik, epe laburreko zorrak ordaintzeko. Kaudimen ratioa aztertuz ere, ez zuen gaitasun askorik ezin bait zien zor hauei horiekin aurre egin eta hortaz, falta zen zenbateko hori jabeek jarri beharko zuten enpresa aurrera atera nahi bazuten.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= $BAIT / Aktibo Totala = Marjina \times Errotazio$

$BAIT = Emaidza + Gastu finantzarioa \pm MGZ$

$BAIT\ 2015 = 76.747 + 4.575 + 0 = 81.322$

$BAIT\ 2017 = -4.409 + 1.051 + 0 = -3.358$

TAULA 37: Iammek enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	0,37%	-68,53%
Marjina= BAIT/Salmenta	0,53%	-
Errotazioa= Salmenta/At	0,7	-

Iturria: Sabi datu basetik berreskuratutako datuak

Oinarri urtea

Enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 0,37 m.u. unitate irabazten zituen. Horietatik 0,53 marjenetatik lortzen ziren, hau aldagai nagusia izanik, baino enpresak aktiboa 0,7 aldiz soilik saltzen zuenez urte batean, enpresaren errentagarritasun ekonomikoa murrizten zuen.

Bilakaera

IAMMEK S.L. enpresak aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik irabazi oso txikiak izatetik 68,53 m.u. galerak izatera igaro zen. Galera horren arrazoia ezingo dugu haratago aztertu 2017ko salmenta kopurua ez baitugu ezagutzen, baina esan beharra dago enpresaren egoera 2017an asko okertu zela ez baita errentagarria.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
d1: $\frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
d2: $\frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{113.609}{151.591} \times 360 = 270 \text{ egun}$	$\frac{-}{-} \times 360 = - \text{ egun}$
BHA	270 egun	-
<i>Ordainketa epea</i>		
d3: $\frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	35 egun	-
UEFB garbia	235 egun	-

Oinarri urtea

BHA 270 egunetako izan zen, hau da, salgaiak erosi, saldu eta kobratu arte igarotzen ziren egun kopurua adierazten du. Hala ere, hornitzaileak 35 eguneko epean finantzaten zirenez, enpresaren behar finantzarioa 235 eguneko izatea ekarri zuen.

Bilakaera

Enpresaren bilakaerari dagokionez, ezingo dugu ezer interpretatu. Izan ere, enpresak 2017 urtean izan zituen salmenta kopurua ez baitugu ezagutzen eta beraz, ez dugu kobro epea ez eta ordainketa epea ezagutzen aurreko urteekiko alderatzeko.

10) ISASTI S.A.

1.1 Balantzea

TAULA 38: Isasti enpresaren balantzea

AKTIBOA	2015	2017	OG+PASIBOA	2015	2017
Aktibo ez korrontea	69.928	66.110	ONDARE GARBIA	-587.914	-587.914
Aktibo korrontea	277.879	180	PASIBOA	935.721	654.203
AKTIBO TOTALA	347.807	66.290	Pasibo ez korrontea	903.430	605.649
			Pasibo korrontea	32.291	48.554
			OG+PASIBOA	347.807	66.289

Iturria: Sabi datu basetik hartutako datua

OG < 1/2 KS

$$2015 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-587.914}{360.600} = -1,63 < 0,5$$

$$2017 \text{ URTEA: } OG/KS < \frac{1}{2} \quad \frac{-587.914}{360.600} = -1,6303 < 0,5$$

Ez du lortu desorekatik irtetea

1.2 Errotazio fondo

$$EF \ 2015 = (Pek+OG) - Aek = (903.430 - 587.914) - 69.928 = 245.588$$

$$EF \ 2015 = Ak - Pk = 277.879 - 32.291 = 245.588$$

Aek:%20,10		
	EF	OG+Pek:%90,71
Ak:%79,89		Pk:%9,28

		OG+Pek:%26,75
Aek:%99,72	EF	Pk:%73,24
Ak:%0,27		

$$EF \ 2017 = (Pek+OG) - Aek = (605.649 - 587.914) - 66.110 = -48.375$$

$$EF \ 2017 = Ak - Pk = 180 - 48.554 = -48.374$$

Enpresa honen kasuan, gainontzekoetan gertatu ez den moduan, bi urteetan errotazio fondoaren ikus ezberdina izan zuen. Hau da, 2015 urtean errotazio fondo positiboa lortu zuen enpresak, hau da, aktibo korrontearen zati batek, baliabide iraunkorrak finantzatzeko zituen eta horrek marjin operatibo bat ematen zuen, hau da, epe laburrekoak epe luzeak. Gainera, maniobra funtsa edo errotazio fondo positiboa izanik, finantzaketa egoera orekatu baten aurrean zegoela esan dezakegu eta hortaz, ez zen etendurarik ematen.

Aldiz, 2017 urtean, egoera oso ezberdina zen, errotazio fondo negatiboa izanik enpresak, pasibo korrontearen zati batek, aktibo ez korrontearen zati bat finantzatu. Egoera hau emanik, enpresa finantzaketa desorekatu egoeran aurkitzen zen eta beraz, ordainketa etendura bat ematen zen enpresan.

Beraz, enpresak errotazio fondoari zegokionez, okerrera egin zuen 2017 urtean ordainketa etendura bat sortuz enpresan.

Hala eta guztiz ere, enpresaren egoera sakonago aztertu ahal izateko, epe luzeko zein laburreko ratioak aterako ditugu.

1.3 Ratioak

TAULA 39: Isasti enpresaren ratioak

RATIOAK	2015	2017
Sendotasuna: Aek/Pek (1,5-2,5)	0,077402787	0,109155633
Bermea: Aktiboa/Pasiboa (1,5-2,5)	0,37169947	0,101329404
Zorpetzea: Pasiboa/OG (X<0,5)	-1,591595029	-1,112752886
Finantza autonomia: OG/Pasiboa (X>2)	-0,62830053	-0,898672125
Kaudimena: Ak/Pk (1,5-2)	8,605462822	0,003707213
Diruzaintza: Erabilgarria+bihurgarria/Pk (0,8-1)	0,16	0,0037

Iturria: Sabi datu basetik lortutako datuak

Enpresaren inguruko azterketa hau egin ondoren, enpresaren egoera larriaz ohartu gara. Izan ere, ratio guztiak egoera desegoki batean aurkitzen baitira.

Sendotasunari dagokionez, maila oso baxuak lortu zituen, horrek epe luzeko zor asko edukitzearen arriskua dakarrelarik. Hortaz, 2015 zein 2017 urteetan enpresak zor asko zituen. 2017an hala ere ikus daiteke proportzioan, epe luzeko zorrak zertxobait murriztu zituela, horrek sendotasuna pixka bat handituz nahiz eta nahikoa ez izan.

Epe luzeko kaudimen maila ere baxua izan zuen, bi urteetan hau ere. Hau da, enpresak zorrei aurre egiteko behar zituen inbertsio nahikoak ez zituen lortu eta beraz, zorrei aurre egiteko ez zuen gaitasunik. Gainera, ikus zitekeen 2017an enpresak zituen zorrei aurre egiteko inbertsio gutxi zituela, egoera okertuz.

Zorrei erreparatu, bi urteetan zorpetze maila altua zuen enpresak. Izan ere, zor zuen kopurua handia zen eta beraz, kanpo finantzazioarekiko menpekotasuna izango zuen. Hau da, 2015ean enpresak zuen euro bakoitzeko 1,59 zentimo zor bait zituen. Aldiz, 2017 urtean egoera antzekoa bada ere, zertxobait murriztu zen, enpresak zuen euro bakoitzeko 1,11 zentimo zor zituelarik. Kasu honetan, bi urteetan enpresaren baliabide propioak berdin mantendu dira eta beraz, argi esan daiteke murrizketa horren aldagai nagusia pasiboaren murrizketa izan dela.

Zorrak eta baliabide propioekin jarraituz, enpresaren finantza autonomia eskasa da. Esaterako, 2015 urtean, enpresak zor zuen euro bakoitzeko 0,628 zentimo ditu, beraz, zor zuen euro hori ezingo du ordaindu eta etorkizunean inbertsioak egiteko arazoak izango ditu. 2017an 0,89 zentimo ditu eta hortaz, urte horretan ere ez zen zorrei aurre egiteko gai izango.

Aldiz, 2015 urtean kaudimen ratio altua izan zuen. Euro bat zor zuen enpresak epe laburren eta hori ordaintzeko 8,6 m.u. zituen inbertituta, hortaz, enpresak zituen epe laburreko inbertsioak nahikoak ziren zor horiek ordaintzeko ez bait zuen arazorik izango. 2017an aldiz, kontrako egoera ematen da. Euro bat zor zuen enpresak epe laburrean eta hori ordaintzeko 0,0037 m.u. zituen inbertituta, beraz, ezingo zituen zorrak ordaindu.

Azkenik, diruzaintzari erreparatu, enpresak hobetu egin beharko zuen, ez bait zuen diru likido nahikorik epe laburreko zorrei aurre egiteko eta beraz, arazoak ekar diezaiokeen enpresari. Hau da, epe laburreko zorrak ordaintzeko ez zuela diru erabilgarri nahikoa, alegia.

1.4 Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa= BAIT/ Aktibo Totala= Marjina x Errotazio
--

BAIT= Emaidza+ Gastu finantzarioa ± MGZ

BAIT 2015= -484.039+ 21.127+0= -462.912

BAIT 2017= -

TAULA 40: Isasti enpresaren errentagarritasun ekonomikoa

EE	2015	2017
ROI= BAIT/At	-1,33%	-
Marjina= BAIT/Salmenta	-7,82%	-
Errotazioa= Salmenta/At	0,17	-

Iturria: Sabi datu basetik eskuratutako datuak

Oinarri urtea

Aktiboan inbertituriko ehun moneta unitate bakoitzetik 1,33 m.u. ko galerak lortzen dira. Horren eragile nagusia marjina izanik, hemen ere galerak lortuz. Izan ere, ekitaldiko emaitza negatiboa izan zuen eta horrek errentagarritasun ekonomikoari kaltetuko ziolarik.

1.5. Bataz besteko heltze aroa

	2015	2017
<i>Salmenta epea</i>		
d1: $\frac{\text{Salgaien } x}{\text{Salmenten kostua}} \times 360$	-	-
<i>Kobro epea</i>		
d2: $\frac{\text{Bezeroak } x}{\text{Salmentak}} \times 360$	$\frac{275.594}{59.178} \times 360 = 1658 \text{ egun}$	$\frac{-}{-} \times 360 = - \text{ egun}$
BHA	1658 egun	-
<i>Ordainketa epea</i>		
d3: $\frac{\text{Hornitzaileak } x}{\text{Lehengaien erosketa}} \times 360$	0	-
UEFB garbia	1658 egun	-

Oinarri urtea

BHA 1.658 egunetakoa izan da, hau da, salgaiak erosi, saldu ta kobratu arte igarotzen ziren egun kopurua adierazten du. Hala ere, hornitzailekiko ordainketa epean ez duenez egun marjenik eta momentuan ordaindu behar izan zuenez, enpresaren behar finantzarioak 1.658 egunetako izaten jarraitu zuen.

Bilakaera

Enpresaren bilakaerari dagokionez, ezingo dugu ezer interpretatu. Izan ere, enpresak 2017 urtean izan zituen salmenta kopurua ez baitugu ezagutzen eta beraz, ez dugu kobro epea ez eta ordainketa epea ezagutzen aurreko urteekiko alderatzeko.

6. ONDARE GARBIAN DESOREKA ZUTEN ENPRESEN EMAITZA

Finantza desorekan dauden 10 enpresa aztertu ondoren, ondare garbiarekiko duten arazo horretatik irteteko zer egin zuten edo egin zezaketen aztertuko dugu, argi bait dago egoera honetan zeuden enpresak autofinantzaketarako arazoak ziztuztela eta hortaz, zenbaitek erreakzionatu egingo zuela.

Hortaz, ondoren ageri den taulan, finantza desorekatik irtetea lortu zuten eta lortu ez zuten enpresen zerrenda ageri da. Hasiera batean, irakurketa orokor bat egingo bada ere beraien arteko zenbait ezberdintasun azpimarratuz, ondoren, egoera honetatik atera diren enpresetan zentratuko gara.

TAULA 41: OG<2/3 KS egoeran zeuden enpresen emaitza

IZENA	FINANTZA DESOREKATIK ATERA	FINANTZA DESOREKATIK EZ ATERA
KARAKATE S.A.	√	
REPARACIONES AUTO-IRAETA S.A.L		√
RED DE SUMINISTROS TECNICOS S.A.	√	
AIZKOLENE S.L.		√
INROBUL S.L.		√

Iturria: Norberak egindakoa

TAULA 42: OG<1/2 KS egoeran zeuden enpresen emaitza

IZENA	FINANTZA DESOREKATIK ATERA	FINANTZA DESOREKATIK EZ ATERA
LARRIALDIAK ANBULANTZIAK S.L.		√
OKIN-TALDE S.A.		√
ZINEALDIA S.L.		√
IAMMEK S.L.		√
ISASTI S.A.		√

Iturria: Norberak egindakoa

Beraz, taula hau ikusi ondoren, esan dezakegu 10 enpresetatik 2 enpresak soilik lortu zutela egoera honetatik ateratzea, eta beraz, 2 enpresa hauen inguruan sakonduko dugu ondorengo atalean.

Enpresa bakoitza banan banan aztertu ondoren, ikuspegi orokor batetik begiraturaz gero, esan daiteke 2015ean *Ondare garbia*< 2/3 kapital soziala egoeran zeuden 2 enpresak 2017rako ondare garbian zuten desorekatik irtetea lortu zutela. Aldiz, *Ondare garbia*< 1/2 kapital soziala egoeran zeudenak ezin izan zioten ondare garbiko desoreka egoerari aurre egin.

Bi egoera hauetako enpresen artean hainbat bereizitasun antzematen ziren. Izan ere, ondare garbia kapitalaren 2/3 baino txikiagoa zuten enpresek, bere kapital soziala finko mantentzen jarraitu zuten 2015 urtetik gaur egunera arte, bertan mugimendurik burutu gabe. Hortaz, enpresa horietan fondo propioen zenbatekoak aldaketak izan zituen arren, kapitala mantendu egin zuten. Gainera, 5 enpresa horietan, fondo propioak positiboak izan ziren, enpresak autofinantzaketarako zuen gaitasuna aldatu bazen ere, ifoiz ez zen negatiboa izan.

Aldiz, egoera larriagoan zeuden beste 5 enpresetan ez zen egoera hau ematen. Izan ere, hauetako zenbaitetan kapitalaren zenbatekoa aldatu egiten zen, kapital murrizketa bat burutuz horietako batzuetan. Gainera, hauek zuten bereizitasun nabarmena hauen fondo propioak negatiboak zirela izango litzateke, bai 2015 urteetan zein 2017 urtean. Kapitalaren zenbatekoa positiboa zen arren, guztietan bestelako fondo propioetan enpresak galerak zituen eta horrek, enpresaren baliabide

propioen urritasuna izatea eragin zuen. Egoera hori izanik, enpresa hauek ezin izan zioten 2017 urtean ondare garbian zuten desorekari oraindik aurre egin, enpresak arazoak izaten jarraitu zuelarik.

Irakurketa orokor hau egin ostean, banakako analisiari ekingo diogu. Aurretik esan bezala, 10 enpresa badaude ere, guk 2 enpresa aztertuko ditugu, 2017an finantza desorekatik irtetea lortu zutenak hain zuzen.

6.1. Ondare Garbiaren oreka berreskuratu duten enpresen azterketa

Ondare garbiaren desorekari aurre egiteko aurretik hainbat politika aipatu ditugu, ondare garbiari eragiten dioten eragiketak, pasiboari eragiten dioten akzioak, aktiboari eragiten dioten akzioak eta galdu irabaziari eragiten dioten akzioak besteak beste, eta hortaz, politika hauek zein neurritan lagundu dioten enpresari azalduko da, enpresa desoreka egoeratik irteteko.

Lehenik eta behin, KARAKATE SA enpresa dugu. Enpresa honen kasuan, hainbat gauza dira 2015 urtetik aldatu dituztenak eta horien ondorioz, finantza desorekatik irtetea lortu zuen.

Kapitalari dagokionez, enpresaren fondo propioak hazkuntza bat izan zuen arren, kapital gehikuntza bat egon zela ezingo dugu esan, kapitalaren zenbatekoa berdin mantendu bait zen. Gainera, enpresak epe luzeko finantzaketa handitu beharrean murriztu egin zuen 451.789 ko diferentzian, hain zuzen. Hala ere, epe laburrekoak nabarmen hazi ziren, enpresak puntu honetan irtenbide bat bilatuz 499.254 ean handitu bait ziren.

Gainera, ratiotan aztertu moduan, 2015 urtean enpresaren sendotasun maila oso baxua bazen ere, hau da, epe luzeko zor asko edukitzearen arriskua bazuen ere, 2017 urtean 2015 urtearekin alderatuz, zertxo bait handitu zela esan dezakegu. Izan ere, 2017an epe luzeko zorrak nabari gutxitu ziren, nahiz eta ratioak emandako emaitzetan ez zen hain argi ikusten.

Zorrek jarraituz, epe luzeko kaudimen maila ere ez zuela oso ona aztertu dugu, hau da, inbertsioak baino zor gehiago zituela alegia eta beraz, ez zuela zorrei aurre egiteko nahikoa gaitasunik adierazten. Hala ere, aldaketa nabaria ez bazen ere 2017an zorrei aurre egiteko gaitasun handiagoa zuela adierazi zuen, hori enpresarentzat ona izanik.

Enpresak 2015 urtean, kanpo finantzarekiko menpekotasuna zuen. Aldiz, 2017an zorpetze maila altua izaten jarraitu bazuen ere, nabari murriztu zen honek ondare garbian aldaketa bat sortuz. Hau da, ondare garbian emandako gehikuntzaren ondorioetako bat izan zen, hau handitzearen eraginez, enpresaren egoera hobetoago bat lortu zelarik eta beraz, ondare garbiaren desorekatik irtetearen arrazoi nagusietako bat izanik.

Bestalde, hornitzaileekiko ordainketa epea luzatzea helburu bait zuen ere ez zuen lortu, 2015 urtean hornitzaileei ordaintzeko 56 egun izatetik 2017an 50 egun izatera igaroz, eta hortaz, 6 egun lehenago ordaindu beharko zitelarik bere beharrak handituz.

Aktiboari dagokionez, enpresak bere inbertsioak murriztekotan, zenbait elementu saltzea edota alokatzea planeatu zezakeen horrela, enpresaren aktiboa gutxitzea lortuz egoera honetatik irtetzeko. Kasu honetan, enpresak ibilgetu materialak saldu edo alokatzeko bideari ekin zion, 2015 urtean ibilgetu materialean 56.221 izatetik 2017an 53.473 izatera igaroz, gutxi murriztu bazuen ere, zerbait saldu edo alokatu zuela ikus zezakeen. Horretaz gain, izakinen salmenta bat ere eman zen, izakinak 5.417an murriztuz 2015 urtearekiko.

Bezeroaren kobro eskubidea zela eta, enpresak bezeroei kobro eskubide hori luzatu zieten, 69 eguneko izatetik 89 egun izatera. Luzaketa hori enpresarentzat ez zen komenigarria, izan ere, bezeroak 20 egun

berandugo ordaindu ziezaiokeen eta beraz, enpresa egoera larrietan aurkituz gero ez zuen diru likido nahikorik izango zorrei aurre egiteko.

Eta azkenik, kobro eskubidearekin lotura duen batuz besteko heltze aroa handitu egin zen 2017an. Hau da, salgaiak erosi, saldu eta kobratu arte igarotzen denbora luzatu egin zen, hau ere, enpresarentzat kaltegarria izanik.

Hala ere, irakurketa orokor baten ostean, esan dezakegu epe laburreko finantzaketa nabarmen handitzearen ondorioz eta ibilgetu materiala eta izakinak saldu edo alokatzearen bidez, enpresak egoera honi aurre egitea lortu zuela, gaur egun indarrean jarraituz.

RED DE SUMINISTROS TECNICOS SA erreparatuz, ondare garbian zuen desorekatik irtetearen arrazoi nagusia, aktiboan emandako zenbait aldaketa izan ziren hasiera batean. Hau da, enpresak 2017rako zenbait ibilgetu material saldu edota alokatu zituen, horrek enpresaren aktiboa murriztea eragin zuelarik. Gainera, aktiboa gehiago murriztearen bide horretatik, enpresak izakinak ere saldu zituen, 2015 urtean 111.672 izanik eta 2017an 104.536 izatera igaroz.

Hortaz, aldaketa hauek izan ziren enpresa ondare garbiaren desorekatik atera izanaren arrazoi nagusiak.

Arrazoi horietaz gain, beste zenbait aldagaiek ere eragina izan zuten. Izan ere, enpresak 2015 urtean epe luzeko kaudimen maila txikia zuen, hau da, ez zituen behar bezain beste inbertsio eta beraz, zorrei aurre egiteko gaitasun juxtua zuela adierazten zuen. Aldiz, 2017an epe luzeko kaudimen egokia zuela ikus zitekeen, inbertsioak zorrak baino gehiago edukiz eta horiei aurre egiteko arazorik ez zutelarik.

Gainera, enpresak 2015 urtean, zorpetze maila altua bazuen ere, hau da, kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna bazuen ere, 2017 urtean menpekotasun hori txikiagoa izatea lortu zuen, aurreko urteetan zituen zorren zenbatekoa murriztuz eta enpresaren egoera hobetoago bat lortuz.

Gainontzeko aldagaiak ez zuten hobekuntza bat jasan, hornitzaileekiko ordainketa epea 22 egunetan murriztu zelarik eta bezeroekin zuten kobro epea ere 9 egunetan luzatu zelarik. Gainera, bezeroen kobro epea luzatzeaz gain, batuz besteko heltze aroa ere luzatu egin zen, hau da, salgaiak erosi, saldu eta kobratu arte igarotzen zen denbora hori 102 egun izatetik 111 egun izatera igaro zen, enpresarentzako kaltegarria izanik.

6.2. Ondare Garbiaren oreka berreskuratu ez duten enpresen azterketa

Ondare garbiaren desorekatik irtetea lortu ez duten enpresen egoera aztertzen hasiz gero, esan dezakegu hiru enpresa iadanik ez daudela funtzionamenduan, hau da, gaur egun AIZKOLENE S.L., OKINTALDE S.A. eta ISASTI S.A. enpresak ez daude egoera aktiboan, eta hortaz, kasu honetan oso argi ikus daiteke ez ziotela desoreka horri aurre egitea lortu urte bateko epean, horrela, enpresa itxiz.

Gainera, ZINEALDIA S.L., IAMMEK S.L. eta INROBUL S.L. enpresak aktibo moduan badaude ere, hauek ez dute jarduerarik burutzen gaur egun, hau da, ez dute ustiapeneko sarrera ez gasturik kontabilizatzen. Beraz, datu hauek ikusita, ondoriozta dezakegu enpresa hauek disoluzio prozesuan egon daitezkeela, nahiz eta oraindik enpresa bezala aktibo egon.

Bestalde, LARRIALDIAK ANBULANTZIAK S.L. kasu berezi bat da, izan ere, SABIn ageri den auditorearen iritzian adierazten den moduan, bezero bakarra du eta kontratua berriztatuta dago. Horretaz gain, bazkidea den "Servicios Socio Sanitarios Generales" finantzaketa arazoak direla eta horiek saihesteko ekarpen berriak egiteko konpromisoa hartu du. Horren bidez, enpresaren egoera zertxobait hobetzeko asmoarekin.

Azkenik, REPARACIONES AUTO-IRAETA SAL enpresa dugu. Enpresa honek $OG < 2/3$ KS egoeran jarraitzen badu ere, hau ez da legez kontrakoa. Izan ere, Kapital Sozietatearen legeak 327.artikuluaren adierazten duen moduan, sozietate anonimoek urte beteko epea dute orekara itzultzeko kapital soziala zabalduz edo murriztuz. Aldiz, enpresa hau SAL bat denez, nahiz eta oreka ez eskuratu legeak ez dio behartzen kapital soziala handitu edo murriztera, beti ere, $OG < 1/2$ KS egoerara iristen ez den bitartean.

ONDORIOAK

Lanaren hasieran aipatu moduan, lanaren helburua Gipuzkoa mailan 2015 urtean ondare garbian desoreka zuten enpresen bilakaera aztertzea da. Lan hori burutzeko ezinbestekoa izan delarik enpresaren zuzeneko analisi bat egitea eta horrekin batera zenbait aldagai ateratzea.

Irakurketa orokor batetik abiatuz, esan dezakegu 2015 urtean Espainian zeuden enpresa kopurua murriztu egin zela 2017 urtearekin alderatuz, horrek Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoa mailan ere enpresen kopuruaren murrizketa bat ekarri zuelarik.

Bestalde, aipatzekoa litzateke ondare garbiaren desorekan zeuden enpresen azterketa burutzeko egokiagoa ikusi nuela bi egoera desberdinetan zeuden enpresak hartzea, horrela, egoera ezberdinak ikertuz aldagai berriak agertuko direlarik.

Batetik, ondare garbia kapital sozialaren bi heren txikiagoa duten enpresak aztertuz. Egoera honetan aurkitzen ziren enpresa gipuzkoarren kopurua hazi egin zen 2017 urtean, 2 enpresa gehiago egonik. Hala ere esan beharra dago, aurretik burututako lanean 2015 urtean egoera horretan zeuden 2 enpresa sakonago aztertu ditugula. Izan ere, 2 enpresa horiek legeak ezarritako urtebeteko epe horretan, egoerari aurre egitea lortu zutelarik.

Sakonago aztertu ditugun 2 enpresa hauek, ondare garbiaren desorekari aurre egitea lortu izanaren arrazoi nagusia hainbat politika izan dira. Hau da, ondare garbiari eragiten dioten eragiketak, pasiboari eragiten dioten akzioak, aktiboari eragiten dioten akzioak zein galdu irabaziari eragiten dioten akzioak besteak beste, politika bakoitzak neurri ezberdinetan eraginez.

Politika hauetan aukera asko eman daitezkeen arren, bi enpresa horietan batzuk soilik izan dute eragin nabarmena. Hain zuzen ere, enpresetako batean epe laburreko finantzaketa nabarmen handitzea eta ibilgetu materiala zein izakinak saldu edo alokatzearen bidez lortu zuten egoerari aurre egitea. Aldiz, beste enpresan, politika nagusia aktiboan emandako zenbait aldaketa izan ziren hasiera batean, zenbait ibilgetu material saldu edota alokatu zituelarik. Gainera, aktiboarekin jarraituz, enpresak aukera horiez gain izakinak ere saldu zituen. Hortaz, esan daiteke bigarren kasu honetan arrazoiak hauek bakarrik ez badira ere, arrazoi nagusiak hauek direla.

Bi enpresa hauek aztertu ondoren, ondoriozta genezake bi enpresek aktiboari eragiten dioten eragiketetan izan dutela aldaketa, eta izakinak saldu edota ibilgetuak alokatzearen ondorioz lortu zutela desoreka egoera horretatik irtetea.

Bestetik, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa zuten enpresak aztertu ziren. Kasu hau zuten enpresa gipuzkoarren kopurua murriztu egin zen, nahiz eta guk egoera honetan aztertu ditugun 5 enpresetatik bat bera ere ez den egoera honetatik atera.

Atera ez izanaren arrazoiak hainbat izan zitezkeen. Batetik, enpresa bakoitzean errotazio fondoak izan duen aldaketa hartu beharko litzateke kontuan, izan ere, errotazio fondo (EF) positiboa edota negatiboa izan zezakelarik enpresak. EF+ izanez gero, epe laburreko inbertsioak finantzatu ahal izateko, epe luzeko finantza iturrietako zati bat erabiltzen da. Honek, kostu ekonomiko garrantzitsua sortzen dio enpresari, baina, aldi berean autonomia eskaintzen dio, beraz, egoera hau dutenek ikuspegi honetan ez dute

arazorik izango, baina bai, errotazio fondoa (EF) negatiboa denean. Izan ere, EF- edukitzeak, pasibo korronteak aktibo korronte osoa finantzatu ondoren finantzatzen duen aktibo ez korrontearen zatiari deritza. Ikur negatiboak arrisku finantzarioa sortzen du enpresan, tentsioak diruzaintzan, ordaindura etendura teorikoa, behar bada nire epe laburreko zorrak ordaintzeko aktibo ez korrontea saldu behar izatea, etab. Beraz, desoreka finantzario edo egoera ez egonkor bat adierazten du.

Ratioei dagokienez ere, enpresak epe luzeko zor asko edukitzearen arriskua zuen edo ez ikusi beharko litzateke, bai eta, egoera onean egoteko inbertsioak zorrak baino gehiago izatea, horrela, zorrei aurre egiteko nahikoa gaitasun zuela adieraziz.

Ondare garbian desoreka egoeran jarraitzen zuten enpresen kasuan, orokorrean, zorpetze maila altua izaten jarraitu dute, honek kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna izatea zekarrelarik, enpresan egoera larri bat emanik.

Enpresaren kapitala dela eta, honi ere errepaso bat eman beharko zaio, horrelakoetan kapital murrizketa bat edo hazkuntza bat eman daitekeelarik egoera honetatik irteteko.

Bestalde, hornitzaileekiko ordainketa epea luzatzea helburu izango zuen enpresak, denbora gehiago edukiz hornitzaileei ordaintzeko. Kopro eskubidea ere kontutan eduki beharko dute, bezeroengandik kobratzeko duten epe hori laburtzea komeniko litzatekeelarik. Horrela, diru likido nahikoa izango zutelarik zorrei aurre egiteko.

Hortaz, argi dago desoreka egoerari aurre egitea lortu ez zuten enpresa horiek aurretik aipatutako aldagaietan ez zutela emaitza egokirik lortu eta horren ondorioz, enpresaren egoera larriari aurre egitea lortu ez zutelarik.

Ondorioz, 2017an ondare garbian desoreka egoeran dauden enpresek lehen bai lehen erreakzionatu beharko dute, aurretik aipatutako puntuetan hobekuntzak emanaz edota beste enpresa batekin akordioak burutuz, merkatuan aurrera egin ahal izateko. Horrela ez den kasuetan, enpresak disolbatu egin beharko du merkatutik ateraz eta enpresa itxiz.

BIBLIOGRAFIA

- Abogados CE Consulting. (2016). *El desequilibrio patrimonial en las sociedades mercantiles. Caudes para su solución*. Obtenido de El desequilibrio patrimonial en las sociedades mercantiles. Caudes para su solución: <http://www.consultingabogados.es/actualidad/blog/213-el-desequilibrio-patrimonial-en-las-sociedades-mercantiles-cauces-para-su-solucion>
- Argote Ibáñez, A.; Corral Lage, J.r; Ipiñazar Petralanda, I.; Peña Miguel, N.; Temprano Gutiérrez, V.; Zubiaurre Artola, M. (2014). *Open Course Ware*. Obtenido de Goi Mailako Flnantza Kontabilitatea: <https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=325&lang=es>
- Belzuz abogados, S. (s.f.). *Desequilibrio patrimonial en las sociedades mercantiles como cauda de disolución y posibles mecanismos a aplicar*. Obtenido de <http://www.belzuz.net/es/publicaciones/en-espanol/item/1042-abogados-especialistas-sociedades-mercantiles-y-derecho-societario-madrid-espana.html>
- Bertran Codina, S., Lloret Villota, J., & Lorente Sibina, R. (2019). *Planes de viabilidad*. España: Registro de Expertos Contables.
- Fernández González, F. J., Álvarez Carriazo, J. L., & Romano Aparicio, J. (2014). *Contabilidad de sociedades*. Madrid: Centro de estudios financieros.
- Herández Cuellar, C. (25 de Marzo de 2015). *Prima de emisión*. Obtenido de Economipedia: <https://economipedia.com/definiciones/prima-de-emision.html>
- Kiziryan, M. (27 de Mayo de 2015). *Fondos propios*. Obtenido de Economipedia: <https://economipedia.com/definiciones/fondos-propios.html>
- Kiziryan, M. (27 de Mayo de 2015). *Reservas*. Obtenido de Economipedia: <https://economipedia.com/definiciones/reservas.html>
- Plan general contable*. (2008). Obtenido de cuadro de cuentas PGC: https://www.plangeneralcontable.com/?tit=109-acciones-o-participaciones-propias-para-reduccion-de-capital&name=GeTia&contentId=pgc_109
- Plan general contable*. (2008). Obtenido de cuadro de cuentas PGC: https://www.plangeneralcontable.com/?tit=108-acciones-o-participaciones-propias-en-situaciones-especiales&name=GeTia&contentId=pgc_108
- Real decreto 1514/2007, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad*. (16 de Noviembre de 2007). Obtenido de Real decreto 1514/2007, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad: <https://www.boe.es/eli/es/rd/2007/11/16/1514/con>
- SABI. (s.f.). Obtenido de INFORMA D&B: <https://www.informa.es/riesgo-empresarial/sabi>
- Schneider, I. (24 de Julio de 2015). *Desequilibrio patrimonial: Definición, consecuencias y soluciones*. Obtenido de Vilá Abogados: <https://vila.es/desequilibrio-patrimonial-definicion-consecuencias-y-soluciones/>
- Vázquez Burguillo, R. (2019). *Dividendo*. Obtenido de Economipedia: <https://economipedia.com/definiciones/dividendo.html>

